



uk

40. zenbakia / 2003 apirilak 13

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Hegalaria. Juan Gómez.
6. PLAZA. Iritzia, Juanxu Rodríguez. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, edicionexts@euskalnet.net.
7. LEHEN ETA ORAIN. Arluze.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Sinisten diren gauzak. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Txaro Arteaga. Unai Brea.

KULTURA ETA AISIA

28. FOTOGRAFIA. Noél Rubianes.
32. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Irudi Biziak elkarte.
33. MUSIKA. Kierosilenzio taldea.
34. IRAKURGAIK. Esti Ezkeraren zutabea eta Unai Elorriaga.
35. ELKARRIZKETA. Aitzpea Goenaga.
36. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
37. KOMUNIKAZIOA. Pulitzer jauna.
38. EKOLOGIA. Katajineta eta energia berriztagarriak.
39. TXANGOIA. Liendo. Gonzalo Iribarnegaray.
40. OSASUNA. Ariketa fisikoaren onurak eta insomnioa.
41. JANTZI. Emakumezkoentzako bainu-jantziak.

EUSKARAZ

42. URIBERTSOAN BARRENA. Iñaki Benito del Valleri elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
44. AKABUKO PUNTE. Antonia Arondegaz egon da Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
46. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa...

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan? Plentziako Kaia jatetxean.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Getxoko udal banda, 1928. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Sorkun. Eunáte Serrano.



26 Txaro Arteaga

Berbetan

Emakunde erakundeak oraingoz izan duen zuzendari bakarra dugu, donostiarra jatorriz eta 58 urtekoa adinez.



24 Albuma



54 Sorkun



35 Aitzpea Goenaga



45 Iñaki Benito del Valle



AZALA: Noél Rubianes



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Eunate Serrano

FOTOGRAFIA: Asier Menbaka

TESTUEN ORRAZKETEA: Xabier Bilbao

KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Etxepare, Iratxe Agirre, Eduard Ugarte, Xabier Etxebarri, Patxi Diaz, Gonzalo Iribarregaray, Berobts Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte

MARRAZKILARIAK: Gorka Vázquez, Mixelko Uranga, Dogan Gozel, Iñigo Mirantes

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1678-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein

informatikaz kopiatzea, baimen barik,

erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko

herri aldizkari eta euskara elkarten

Topaguneko partaide da

	<p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	
---	--	---

	<p>GETXOKO UDALA</p>	<p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
---	----------------------	--

	<p>Leioako Udala</p>	<p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du</p>
--	----------------------	--

	<p>Erandioko Udala</p>	<p>Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>
---	------------------------	--

	<p>Bizkaiko Foru Aldundia</p>	<p>Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p>
---	-------------------------------	---

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Gerra izeneko eraso

Gerra garaian, egia da lehenengo biktima. Irakeko inbasioak (ez gerrak, hori ez da gerra bat) diktadore bat botatzea dauka helburu. Bitxia da, bai, historian zehar diktadore gehien ezarri edo lagundu dituen herrialdeak diktadore bat boteretik kendu gura izatea. Gainera, Irakeko inbasioak mundu osoko biztanleok Saddam Hussein-ek zalantza barik gordeta dauzkan arma beldurgarrietatik babestea dauka helburu. Baina giza eskubideak egunero zapaltzen dira, munduko herrialde gehienetan, guztietan ez esatearren. Eta herrialde askok dauzkate arma beldurgarriak. Zergatik AEBek bakan batzuri baino ez diete eraso egiten? Zergatik ez Israeli, edo Nigeriari, edo Espainiari berari? Zergatik AEBek ez diete eraso egiten AEBei?

Gasolina litroak dolar bat inguru balio du. Irakiar baten bizitzak, hori baino askoz gutxiago. Ez da harrizkoa, gasolinaren ekoizte-prozesuaren lehen urratsa irakiarra hiltzea da eta. Batzutan, lotsa ematen du Lehen Munduko biztanlea izateak.

UK-ko lantaldea

gutunak



BARANDALLA ETXERA

Euskal preso politikoen kontrako erasoak areagotzen ari diren honetan Bautista Barandallari heriotz zigor kamuflatu bat ezarri nahi diote, eta gu ez gaude prest horrelakorik onartzeko. Horregatik, gure borroka moldeetan beste jauzi bat egitea erabaki dugu, gauza bakarra eskatzeko: Barandalla askatu dezatela oraintxe bertan! Ez gara pribilegioez hitz egiten ari, eskubideez baizik. Barandallaren eskubidea baita. Bere gaitza sendatzeko edo gutxienez okerrera ez egiteko bere senideekin, bere etxean egotea. Barandallaren askatasuna lortu arte, luzatuko dugu oraingo borroka. Borroka honetan txandakako txapeoak egingo ditugarrik. Martxoaren hamabostetik aurrera, astebururo, gutariko bi bisitetara baino ez gara aterako gure txaboloetatik. Epailearen erabakia 92. artikulua aplikatzea izatea guztion esku dago. Zuen esku. Gure esku. Jakin beza, euskal heritarrok erabakiaren zain gaudela; eta ez gaudela prest Barandalla espetxean usteltzen, hiltzen uzteko. Gure esku dagoen guztia egingo dugu. Bautistak bere gaixotasunari aurre egin diezaion, etxean, giro lasaiagoan, behar adinako higijene neurriekin eta behar bezalako kontrolarekin. Bestela gaixotasunak jango du. Jada ikusi dugu sasi epaile horren erabakia zein izan den, hala ere euskal gizarteak horrelako erasoer aurre egiteko prest dagoela erakutsi du. Oraingoan ere horrela izango delakoan gaude eta hor egin nahi dugu hain zuzen gure aportazio xumea. Hemendik dei bat egin nahi dizuegu: borrokatu zaitetze. Borrokatu Barandallari 92. artikulua aplika diezaioten. Euskal Herriko herri bakar batean ere ez dadila inor besoak gurutzatuta geratu. Guk baino baliabide gehiago duzue ezer egiteko. Premiazkoa da.

Eta hiri Bautista, hirekin gaudela. Ez etsi, goiari eutsi.

Aiboa Casares Etxebarria. Alcalako espetxea, 2003ko martxoaren 15ean

goierritarrak



PORTU ZAHARRA, 2002 UDA (GETXOKO TURISMO BULEGOAK UTZITAKO ARGAZKIA)

Hegalaria / Iazko udan, Portu Zaharreko jaietan, antzarren egunean, irudi paregabe hau hartu zuen Juan Gómez argazkilaria erandioztarrak. Orain Getxoko Turismo Bulegoa, herria kanpoan ezagutarazi eta “saltzeko” egiten ari den *Getxo, dena zure esku* kanpaina erabiltzen ari da argazkia, etaM esaterako, metroan, aireportuan edota hainbat bidaiari aldizkaritan ikusiko duzue. Ekinaldi hau atzerrira ere eraman du Turismo Bulegoak, kanpotarrak gurea ezagutzera etor daitezten. / Argazkia: Juan G. mez

Leihatila

> Josu Esnaola

Ez da erraza

Lehengo zapatuan tabernara joan nintzen gosaltzera eta ohiturari jarraituz erdaraz eskatu nion kafesnea zerbitzariari. Berak ere erdaraz erantzun zidan. Kafesnea hartzen ari nintzela alboan neukan gizonak euskaraz egin zion eta honek euskaraz erantzun. Harrituta galdetu nion zerbitzariari ea euskalduna zen, eta baietz, berari euskaraz egiten badiote euskaraz erantzuten duela.

Gero etxera heldu eta egunkarian irakurri nuen eredu euskaldunak nagusi direla gure Erkidegoan, Uribe Kostan 200.000 lagun garella eta horietatik 50.000 euskaldunak. Arratsalde osoa buruko minez eman nuen, beharbada ardoa izango zen.

Egia esan errazagoa da Egunkariaren aldeko bilkuretaragertzea, seme-alabak eredu euskaldunetan matrikulatzea, Korrika eta antzekoetan parte hartzea egunero-egunero edonon eta edonorekin euskaraz saiatzea baino. Baina lagun batek dioen legez, nork dio euskalduna izatea erraza denik? 4

Iritzia

Iraken egon berri den **Juantxo Rodríguez Komite Internazionalistak** taldeko kideak han bizitakoa eta gerra honi buruzko bere iritzia azaltzen du

Hangoa salatu behar da

«Bertatik bertara ikusi ditugu herritarren adorea, bonbardaketek sortzen duten izua eta erresistentziarako borondatea»


Pasa den martxoaren 23an itzuli ginen Irak-etik Gerraren aurkako Euskal Herriko Brigadaren partaide batzuk. Astebete lehenago irten ginen Bagdaderantz, gerra salatu eta Irakeko herritarrei gure elkartasuna helarazteko. Zaila egin zitzaigun hara joateko erabakia hartzea, baina are zailagoa izan da etxera atzera etortzea, Bagdadeko jendea zein egoera latza jasaten ari den jakinda. Han geunden bitartean une zoragarriak eta aldi berean ikaragarriak bizi izan ditugu. Bertatik bertara ikusi ditugu herritarren adorea, bonbardaketek sortzen duten izua, erresistentziarako borondatea, gure elkartasunarekiko esker ona. Estatu Batuek, gobernu espainarra morroi dutela, berriro gerra hasi dute herri horren kontra, bere buruaren jabe izan nahi izateagatik. Irakeko petrolioa eskuratzearren, Golkoko Gerra piztu eta 1.500.000 hildako eragin dituen enbargoa ezarri zuten, orain berriro erasoka hasi aurretik. Milaka pertsona hiltzen dituzte sunsitzeko ahalmen handiko armak desegiteko aitzakiaz. Beste sasi-arrazo baten izenean, demokrazia ezartzearena, bizkarra ematen diote mundu osoak diotenari. Segurtasun eza eta terrorismoaren aurka borrokatu beharra argudiatuta, pentsa daitekeen modu terroristenean jokatzeko dute.

Gu etxera itzuli gara, han ikusitakoa hemen salatu eta gerraren aurkako mugimendua indartzeko asmoz, baina Euskal Herriko Brigadak Bagdaden jarraitzen du oraindik. Gerra egoeran denok bertan gelditzeko baliabide nahikorik ez zegoenez, hiru ordezkarri aukeratu behar izan genituen, Espainar Estatuko beste sei internazionalistarekin batera geratzeko. Irakeko herriarekin egon nahi dute egun latz hauetan, elkartasunez eta maitasunez beteriko konpromisoa adierazteko.

Elkartasun, maitasun eta konpromisoko bide hori erredutzat hartuz gero, asko dugu irabazteko. Alde batetik gure duintasuna, bidegabekeriei aurre egitean gizakiak garella erakusten baitugu. Eta bestalderik, gerra honetatik garaile atera ahal izatea: ez arlo militarrean, noski, baina bai politika eta gizartearen ikuspegitik. Kalera irtetzen jarraitzen badugu itxi egin diezaiokegu bidea militarismoan oinarritu nahi duten mundu ordenamenduari. Ordenamendu horren oinarria botere ekonomiko eta militar handiena daukanaren agindua bete behar izatea da, eta ikustea nola jokatzeko duen botere horrek gero eta gerra gehiago antolatuz, gero eta mundu osoko aberastasun gehiago bereganatuz, gero eta gehiago natura esplotatuz, gero eta eskubide gehiago indargabetuz. Euskal Herri bezala, prentsa askatasuna, mugimendu sozial eta politikoaren ilegalizazioa, lan eskubideen murrizketak eta hainbat abar mundu osoan zabaltzen ari dira. Gure eskuetan da beste mundu bat eraikitzea. Horretarako gerra honi ezetz esaten jarraitu behar dugu, giza eskubideak, askatasunak, justizia eta desmilitarizazioa defendatu behar ditugu, hemen eta mundu osoan. Ejerzitoa deuseztatuz behar dugu, horretan xahutzen den dirua gizarteak benetan behar dituen gauzetan erabili, eta armak ekoizten dituzten enpresak beste tresna batzuk sortzeko eraldatu. 4

Juantxo Rodríguez (Komite Internazionalistak)

[lehen]



[orain]

**Iraganez doa denbora* beti / ARRILUZE**

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > Pupi Sopelako plazan

Argazkiak: Asier Mentraka // Manipulazioa: UK

[talaia]

jendea > aurrerantzean ez dugu Iñaki Kortazar bere dendan ikusiko

Instituzioa da Algortan. 46 urteko Iñaki Kortazar algortarrak eta bere anaiek utzi egingo dute Amezti kalean dagoen *Jateko* janari-denda ezaguna. Euren gurasoek zabaldu zuten 1962 urtean, eta hil ondoren Iñaki, José Antonio eta Josu semeek hartu zuten dendaren ardura. Dagoeneko hiru lagun berri hasi dira *Jateko*-ren salmahaiaren atzean beharrean; Ekuadorrekoak dira eta "*oso jende fina, zintzoa eta, batez ere, langilea da, negozio honek behar duen bezala*", diosku Iñakik. Pena handiz doa berak: "*Aurrerantzean ez da izango familiaren negozioa. Gainera, gaur egun herri batek horrelako janari-denda edukitzea luxu hutsa da, hainbeste supermerkatu erraldoi egonda*". Eta zuzen dabil Iñaki Kortazar; *Jateko*-k oraindik badauka desagertzearen dauden aspaldiko dendaren txikien kutsu hori. ^m

Argazkian, Iñaki Kortazar



Urizarmendi Lemoizen dago

datua > Urizarmendi da eskualdeko lekurik gariena

Lemoizko Urizarmendiren tontorrera igotzen bazara, eskualde honetako lekurik altuenean egongo zara. Gurea ez da ingurune menditsu egia, eta beraz, Urizarmendik nahikoak ditu bere 295 metroak garaieraren txapela janzteko. Baina ez pentsa, eskualdeko mendirik txikiena zein den ere ikertu dugu. Edo, bestela esanda, mendi izena merezi duen gunerik baxuena zein den. Armuru da, Berangon dago, Getxogaz mugan, eta 33 metro altu da. Oso aproposa mendizale alperrentzat. ^m



bazen > Athletic-ek Uribe Kostan jokatzeko zuten

XIX. mendearen amaieran, bizkaitarren eta ingelesaren arteko merkataritza harremanak bitarteko zirela, heldu zen futbola gureru. Orduan sortu zen Bilboko lehenengo taldea: Bilbao Foot-ball Club. Talde honek Lamiakon jokatzeko zituen etxeko partiduak. 1898an, eta kirol berriaren zaleak ugazteak eraginda, Athletic Club sortu zen. Talde bien artean lehia handia sortu zen, baina 1902an biak elkartu eta Bizcaya izeneko selekzioa egin zuten. Izen honekin Espainiako lehen txapelketa irabazi zuten. Hurrengo urteetan, eta bakoitza bere aldetik osteratu ere, Athletic Cluben nagusitasuna nabarmena izan zen; honek ere Lamiakoko futbol zelaian jokatzeko zituen orduan etxeko partiduak. Arazo ekonomiko baten ondorioz desagertzeko zorian egon ostean, Jolasetara aldatu zen. Bertan jokatu zituen nazioarteko lehenengo partiduak. ^m

[talaia]

gauzak > kolunpioa



Zein herritan ez dago kolunpioen bat?

Erromatarrek eta greziarrek utzi ziguten ondare zabalaren adibideetako bat kolunpioa da. Milaka urte dauzka, beraz, baina ez du bere balioa galdu, ume txiki baten edozein gurasok ondotoxi dakienez. Hala ere, ez pentsa umeen kontu hutsa denik. Historian zehar, kolunpioa erlijio-erritoei lotuta egon da: antzina, kulunka ibiltzea zeremonia lagungarria zen arimak purgatoriotik askatzeko, eta garia edo arroza sendoago hazteko. Gaur egun, purgatoriotik askatzeko ez bada ere, arimari lasaitasun apur bat emateko behintzat ondo baino hobeto balio du teknologiaren sasoiaren bizirauten jakin duen tresna sinple honek. Zein herritan ez dago kolunpioen bat? ^m

kale izendegia > Txomin Iturrate



Apaiz hirukoiztarra Diman jaio zen 1901ean eta Cuencako Belmonte herrian hil zen 1927an, 26 urte betetzeko zegoela. Txomin Iturrate Zuberok Algortako Hirutasunean egin zituen ikasketak Erromara joan zen arte; han izendatu zuten apaiz 1925an. Orduetik urtebetera Espainiara itzuli behar izan zuen tuberkulosiak jota zegoelako, eta Belmonteko komentura bidali zuten oso gaixorik; hiru hilabete eskas egin zituen han. Cuencako herri horrek seme-kutuna izendatu zuen eta kale bat eskaini ere bere omenez; Algortako kale luze eta zuzen batek ere Txomin Iturrateren izena dauka. 1974an bere gorpuzkia eroan zuten Belmontetik Algortako Erosledone (Redentor) elizara eta 1983ko urriaren 30ean Joan Paulo II Aita Santuak beatifikatu zuen. ^m

Irudian, Txomin Iturrate

Bilboko Iturribidekalean
BAR?LA?ESPUE

Ostegun kulturalak Puntako
elkartoki eta giro ja
12:00tatik 15:00ak arte
18:00tatik 22:00ak arte BAR
Asteburuetan: 18:00tatik aurrera SPL
tel: 94 415 05

BARBIRULAU + BOST erakusketak
antzerkia
dj.ak
ALGORTA

BISITATU GURE DENDA!
MOROTXO
Kantxa
Kizol moda

350 m²
KIROLERAKO
GUZTIA!!
URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA
TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

Getxon badago etxe merkerik

Erromoko erdi-erdian daude **“etxe merkeak”** izenaz ezagutzen ditugun eraikinak. Auzoari izaera berezia ematen dioten etxe horien sorreraz zeozer **gehiago jakin** gura izan dugu, eta hona hemen zer topatu dugun

Gaur egun Erromoko auzoaren erdigunea betetzen dute “etxe merkeak”. Langileentzako eraiki ziren, duela ia laurogei urte, eta langileen bizileku izaten jarraitzen dute, gaur egun zalantza barik auzoaren eta udalerrri osoaren ezaugarri bihurtu diren etxe bereziok.

1924an “El Hogar obrero de Getxo” izeneko kooperatibak 80 etxebizitza eraiki zituen Erromo auzoan. Bilbo-Areeta treneko beharginek eta metalurgiko batzuek osatzen zuten kooperatiba hura, eta langileei eta euren familiei bizilekua eskaintzeko eraiki zituzten etxeok.

Lanen aurrekontua 1.093.083 pezetako izan zen (kasu honetan, inoiz baino egokiagoa suertatzen da “lehenengo pezetak” esamoldea), baina azkenean 988.742an kitatzea lortu zuten. Orduko Bizkaiko Auzerri Kutzak 786.000 eman zituen maileguan eta gainerakoa kooperatibako bazkideek eman zuten.

«Mota biko etxeak zeuden lehen, arrunta eta nagusia»

80 etxebizitzak 20ko lau lerrotan eraiki zituzten, erdian kale nagusi batez, 100.850 metro koadroko azaleran. Mota bikoak ziren etxeak: arrunta (3 logela, sukalde eta komunagaz), eta nagusia (logela bat gehiagoz). Lehenengoetariko 60 egin zituzten, eta 11.784na pezeta balio zuten. Bigarrenak, 14.229na. Benetan merkeak ziren “etxe merkeak”, garaiko ikuspegitik ere. ^m



Etxe merkeak langileentzat eraiki ziren



Romo izena dela eta...

Sarritan eztabaidatzen da Erromoren izenaren jatorriaz. Askoren ustez, Itzubaltzeta izan beharko litzateke izen ofiziala, eta ez dabilta guztiz oker, horixe delako auzoa eraikita dagoen eremuaren izen jatorria. Baina auzoak Matías Romo enpresa-gizonaren izena hartu zuen azkenik. Romok bertako lur-eremuak erosi zituen XIX. mendearen amaieran, eta beraren izena orduko apaizari eta Arenas Futbol Taldeari esker hasi zen ohiko bihurtzen ingurunea izendatzeko. Apaiza, mezetan, “Romoko eliztarrei” zuzentzen zitzaizkien; bestetik, futbol taldearen zelairako sarrera batzuk Romoren eremuetan zeuden, eta horregatik zelaiari (gaur egun desagertuta dago) Romo izena eman zioten.

Zer ete da 3.600?

Etxebizitzaren gehiegizko prezioa **salatu dute**



Otsailean 3.600 zenbakia margozten ibili ziren nonahi

Getxoko Gazte Asanbladak “3.600” karpaina egiten dabil azken hilabeteotan, bertako kide bik kontatu digutenez. Otsaila osoan zehar zenbaki hori idatzi zuten hiriko zoruan; *“jendearen arreta erakarri nahi genuen”*. Ondoren, 3.600en esangura argitu dute, eskuorrien bidez: Getxon etxebizitza baten metro koadroak daukan batzabesteko prezioa da, eurotan.

Prezio horretan gazteek etxea erostea ezinezkoa dela salatu gura dute, *“horrek*

dakarren guztiarekin”. Independentzia murrizketa, gurasoen kontura bizi beharra... *“Gizarte mailan eragin handia daukan arazoa da”*.

Apirilaren amaieran mozioa aurkeztu gura dute udaletxean: *“Gazteok etxebizitzaren alorreko plangintzan parte hartu ahal izatea eskatuko dugu”*. Bide batez, udaletxearen jarduna kritikatu dute: *“Babes ofizialeko etxeak hauteskundeak datozelako egin dituzte, eta guztiz leku txarretan”*. ^m



Martxelo Otamendi

MARTXELO OTAMENDI ALGORTAN EGONGO DA

Martxelo Otamendi, *Egunkaria*-ko zuzendariak Bizarra Lepoan euskara elkarteak, ALBE Algortako Bertsolari Eskolak eta UK aldizkariak antolatutako ekitaldi baten parte hartuko du datorren apirilaren 11n (barikua). Otamendiz gain, “Euskarazko egunkaria, beharrezkoa ote?” izenburua edukiko duen mahaingurua Maddalen Iriarte, Pedro García Larragan eta Aitor Zuberogoitia kazetariak parte hartuko dute. Mahaingurua Getxo Antzokian egingo da, arratsaldeko 7:30etatik aurrera. Otamendi atxilotua izan zen berak zuzentzen zuen egunkariaren itxieragaz amaitu zen polizi-ekintzan. Hainbat egunez komisaldegian egon ostean, tortura latzak egin zizkietola salatu zuen. Beraren kontrako jazarpena lehenagotik dator ordea. 2002an, Mertxe Aizpuruagaz batera deklaratzera deitu zuten, ETArri egindako elkarrizketa bat zela eta.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

Egunkaria batzordea abiatu da Algortan

Duela pare bat aste eratu zen Algortako Egunkaria Batzordea. Hamabosten bat lagun bildu ziren egindako lehen bilerara; bertan, Egunkariako langile batek egoeraren berri eman zuen, eta hainbat konpromiso hartu ziren. Batetik, eguenetan egingo dira bilerak, arratsaldeko 7etan, hain zuzen ere, eta horretarako aukeratutako lekua Itxasgane etxea izan da. Batzordeak deia egin gura die euskarazko egunkari bate alde behar egin gura dutenei, bertan parte hartzeko. Bestalde, Erromon sortutako batzordeak hamabostean behin batzartzea erabaki du. Lehen hitzordua apirilaren 17an izango da, Erromoko Kultur Etxean eta arratsaldeko 7etan. ^m

Algortako batzordearen aurkezpena



HERRITARRAREN ARRETARAKO TELEFONO BERRIA EGONGO DA

Maiatzean egongo da erabilgarri Getxoko herritarraren arretarako telefonoa. Hainbat kudeaketa telefono horren bitartez egin ahal izateaz gain, bertako langileek iradokizunak jasoko dituzte eta udal zerbitzuen berri ere emango dute. Astelehenean eguenera, 8:30etatik 19etara deitu ahal izango da telefono berrira. Barikuetan (eta uztaia eta abuztuko lan egun guztietan), berriz, 8:30etatik 14etara. Zenbakia ez dute zehaztu oraindik.

Ibai Díez Bilbao > Geologia ikaslea EHUn

«Houston, Houston... arazo bat daukagu!»



Argazkian, Ibai Díez Bilbao

25 urteko getxoetar hau Houston-en egon zen Munduko Astronautika Biltzarrean parte hartzeko eta bertan hezkuntza-proiektu bat aurkezteko. Horren gaineko xehetasunak Ibai Díez berak azaldu dizkigu.

—Zelan sortu zen Houston-era joateko aukera?

—Europako Espazio-Agentziak (EEA) diru asko sartzen du ikasleek proiektuak egin eta aurkeztu ahal ditzaten. Ideia bat bidali nien, asko gustatu zitzairen eta beka eman zidaten Munduko Astronautika Biltzarrerara joateko; gero EHUk ere lagundu zidan. Mundu osotik etorritako 13.000 lagun baino gehiago bildu ginen izen handiko biltzar horretan; Espainiatik, 30.

—Beraz, txiki sentituko zinen. Zer izan zen deigarriena?

—Houston aluzinatzeko moduko hiria da, “porlanezko oihana”, guztiz ezberdina. Dena da erraldoia baino gehiago, gehiegikeria hutsa eta zorabioa eragiten du. Polita

izan zen aste bi baino ez nituelako eman, baina ez dut uste asko gustatuko litzaidakeenik han bizitzea. Tira, probatzeko ez dago txarto.

—Astronomia eta astronautika unibertsitatean sustatzeko elkartea sortu berri duzu.

—Bai, hori da aurkeztu nuen proiektuaren ardatz nagusia. EHUtik 10 pertsonak idatzi didate elkartean lan egiteko gogoia daukatela esanez. Oraindik hasieran baino ez gaude, baina laster lehen bilera egingo dugu Sorian dagoen behatokian eta han erabakiko ditugu bakoitzaren eginbeharrak. Bestalde, Pedro Duque astronautari idatzi diot ea unibertsitatera etorriko den hitzaldi bat ematera; gero elkartearen Ohorezko Presidentetza emango genioke.

—Astronauta batez ari zarenez, ikusi al zenuen NASAkoek entrenatzeko erabiltzen duten zentroa?

—Noski. Esan genezake zati bitan banatzen dela: bata museo baten antzekoa da eta besteak bulegoak ditu (NASA lan egiteko leku bat dela ezin dezakegu ahaztu eta). Museoa oso ikusgarria da: ikus daiteke zelan joaten diren espaziora, astronauten trajeak, espazio-ontziak...

—Astronomia-zaleek zelan jarri daitezke harremanean zurekin?

«Pedro Duque ekarri nahi dut EHUra hitzaldi bat eman dezan»

—Kontaktuak nire e-mailaren bidez egin ditugu: coheteisa@hotmail.com. Benetan interesatzen zaidana astronomiaren munduan hasi nahi duten pertsona guztiak harremanean jartzea eta EEaren jarduerak (bekak eta abar) unibertsitatearen artean sustatzea da. Jende guztiari irekia den elkarrekin egin nahi dugu. ^m



Taldeko kide batzuk iaizko Ibilaldiaren aurkezpen egunean

Itxartu zilarrezko taldea laz hasi ziren 25. urteurrena ospatzen

“Lehen ekitaldi publikoa 1977ko martxoan egin zuen taldeak, Jose Antonio Agirre lehen-dakariari urtero eginen zaion omenaldian”. Xabier Fernández de Labastida eta Aitor Encinas Algortako Itxartu dantza taldeko dantzariak (23 eta 24 urte hurrenez hurren) eurak baino apur bat lehenago jaio zen taldeaz berba egin digute, iaz hasitako 25. urteurrenako ospakizuna aitzakia hartuta.

Udan hasi eta udan amaitu, hori zen plana. “Urte oso bat eman gura genuen urteurrena gogoratzen”. Hasteko, Getxoko Nazioarteko Jaialdian jendaurrean aritu ziren taldeko hainbat kide ohi. Egundun

tzuk geroago, Itxartun jardundako 150 lagun elkartu ziren bazkari batean.

Itxartu dantza-talde hutsa zen hasieran, baina denboraz hainbat adar sortu zitzaizkion: mendi taldea, trikitixa eskola, antzerki taldea... Bakoitzak hitzaldi bat eman zuen abenduan antolatutako kultur asteen. Momentuz ez dute ekitaldi gehiagorik aurrera eroan, baina uda bitartean zeozer egingo dela iragarri dute.

Gaur egun 30 dantzarik osatzen dute Itxartuko nagusien taldea. Umeak eta erdi-bidekoak, berriz, ehun inguru dira. ^m

Harremanetarako: 655 72 81 25

LIBURU AZOKA, APIRILAREN 23TIK 27RA

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna da, eta aitzakia horregaz Kultur Etxeak Liburu Azoka antolatuko du egun horretatik hilaren 27ra arte. Hainbat urte dira azoka hau eginen dela Getxon; oraingoan, 11 liburudendek eta udal liburutegiak parte hartuko dute, euren produktuak kalean salgai ipiniatz, eta %10eko deskontuagaz. Gainera, herriko argazki zaharren eta orri-markatzaileen erakusketa, umeentzako tailerrak, musika... egongo dira. Azoka-gunea Algortako Geltokiko plazan egongo da aipatutako egunetan. (Ikus 23. orrialdea). Apirilaren 23a Cervantes eta Shakespeare-ren heriotzaren eguna da. Biak urte berean hil ziren (1616), baina, harrigarria badirudi ere, ez egun berean, data berdina izanda ere. Izan ere, garai hartan Espainiak eta Ingalaterrak egutegi desberdina zerabilten. Biak apirilaren 23an hil arren, Cervantes hamar egun lehenago hil zen.

KUTSADURA DELA-ETA EREAGAKO HONDARTZA TXAPELKETAK LEKUZ ALDA DAITEZKE

Aurreko UK baten iragarri genuenez, aurten Ereagako Hondartza Txapelketan 12. edizioa egingo da, apirilaren 22tik maiatzaren 23ra. Baina baliteke ohiko gunea aldatu behar izatea, Prestige-ren fuel-olio isurketak hondartzari eragindako kalteengatik. Iñaki Zarraoa alkateak adierazi duenez, kutsaduraren erruz ezin izango balira partiduak hondartzan bertan jokatu, Andra Mari ikastetxe publikoko kirol-instalakuntzak erabiliko lirateke horretarako. Aurreko urteetan, txapelketa hauen lehiakide kopurua 2.000 ingurukoa izan da. Parte hartzeko, derrigorrezkoa da gutxienez zortzi laguneko taldea osatzea.

SATISTEGI

CALLE

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



leioan

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



Erretaularen konpontze lanak

Eliza zapata berriekin

Mundakatik etori da Leioako elizan laster ipiniko duten erretaula, guztiz konpondu ostean

Dena ondo badoa, apirilaren 15ean Leioako Jon Deunaren elizak erretaula edukiko du berriz ere, 60ko hamarkadan teiltua jausi eta aurretik zegoena hondatu zuenetik gabe egon ondoren. Ia berrogei urte eman ditu elizak biluzi antzean, baina, azkenik, Mundakako elizak utzitako erretaulak garai bateko itxura itzuliko dio.

Horretarako, ordea, zaharberritze lan handia egin behar izan da. Leioako Aserrin enpresa arduratu da horretaz, eta horko kide den Fede Vallisek azaldu digu zertan

datzan berreskuratze lan hori: *"Hiru hilabetez, atal guztiak egokitzen egon gara, lagun biren artean, egunero zortzi orduz."*

Izerdi ugari

Zeregin hori lantegian burutu eta gero, erretaularen zati guztien montajea egiten dihardute egunotan. Zailena, Fede Vallisek dioenez, erretaularen goiko aldean egongo den apaingura ipintzea da: *"Pisu handikoa denez, lau lagun artean igo beharko dugu, poleak erabilia eta izerdi ugari botata"*. m

Auzotarrok bizigarri berria

Leioako sei auzo hartzen dituen **elkartek** lehen urteurrena bete du oso gogotsu



Martitzenero biltzen dira, gaueko 9etatik aurrera, San Bartolome kalearen 1 zenbakian

Igor Bilbao ikaslea *Auzotarrok* elkarte-an zuzendaritza-batzordeko kiderik gazteena izan arren, presidentea da hasieratik. Aurreko batzordea deuseztatu zenean, elkarte berria sortu zuen jendea sartu zen; horrela, *Auzotarrok* iazko apirillean eratu zen ofizialki.

Peruri, Artzagane, Aldekoane, Artatza, Basañese eta Telleria auzoak hartzen ditu elkarteak. Igor Bilbaok esan digunez, *"auzo hauek guztiak sakabanatuta daude. Gure asmoa leku horietara kultura eroatea da auzokoen artean loturak sor daitezkeen, eta jakina, topaleku bat eduki dezagun"*.

Urtebeteko ibilbide oparo honetan, *Auzotarrok* elkarteak 91 familia bazkide izatea lortu du; bakoitzak 10 euro ordaintzen ditu urtero. Bestalde, 18.000 euroko diru-languntza jaso du Leioako Udaletik.

Datozen ekitaldiak

Hamaika jarduera antolatuko dituzte elkarteek udara arte: ipuin kontalari saioa, txotxongilo antzezpina, ardoa eta gazta dastatzeko ikastaroa, umeentzako zine-emanaldiak, pintura erakusketa, etab.; asteakabuko irteera bat egiteko asmoa ere badaukate, aterpe batera. m

BEROGAILU ETA ITUR-



T: 430 53

Sarrikobaso 15

ETXEKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -

Lacofris, s.l. SERVITEC

¥ MARKA GUZTIAK
¥ 24 ORDUTAN ERANTZUNA
¥ 3 HILABETEKO GARANTIA
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA

& 94 430 52 00 **Kasune, 18 • ALGORTA**

**KURKUDI
LIBURU DENA**

**Euskarazko
irakurgai**

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402



amesti 7sl

[eraikuntzak]

[etxeetako berrikuntzak]

[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

ERROTULOAK



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu**

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

**udondo
taberna**

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Bizirik

errespeta itzazu

Badira zenbait aste Arrigorriagako bi txirindularik heriotza aurkitu zutela bide ertzean. Egunez azken kilometroak egitera zihoazela, Eretxe inguruko bihurtu batean kotxe batek jo eta bertan gelditu ziren. Ezbehar hark protestak eragin zituen hurrengo egunean, eta horien guztien oihartzuna heldu zen apirilaren 6ko Erandio-Erandio XI. Ibilaldi Zikloturistarraino. Aurreko urteetan bezalaxe, ehunka baino milaka bertaratu ziren txirindulariak, denak ere gogoz, kemenez eta indarrez, gorputzean kilometroak pilotzeaz gozatzeko. Izan ere gozatzeko eguna baitzen, baina ahaztu barik bide ertzean gelditutako txirindulari biak, ez eta harrezkero zauritu diren beste batzuk.

Erandioko irteera, Larrabetzurako lautada, Morgako pendizak, Larrauriko harana, Sollubeko malda istorikoak, Bermeoko portua, Unbeko bihurtu estuak eta, azkenik, Erandioko helmuga izerditan blai. Amaitzek berak ematen duen asetasunaz aparte, gogoratzeko moduko beste sari bat jaso zuten partehartzaileek. Estatua moduko bat, idatzirik zeukana *Bizirik errespeta gaitzazu*. Esaldi horixe zioten bi mila pegatina ere banatu zituen Erandioko Txirindulari Elkarte antolatzaileak.

Erandioko Txirindulari Elkarteko bozeramaile Oskar Morenok azaldu digunez, *"heziketa da garrantzitsuenaren arazo honi aurre egiteko"*. Horrezaz gainera, errepideetan marra gorri bat pintatzeko aldarrikapena azpimarratzen du. Era horretako marra edo neurri ageri bat balego, orain baino gehiago errespetatuko lukete gidariak txirindulariak autoaz aurreratzean legez utzi behar zaien 1,5 metroko derri gorrezko alde hori. m

Iñaki Susunaga "Suka" > Zurt musika taldeko kidea

"Baikorra izatea da gakoa"



Argazkian, Suka

Sukak jakin ez daki zer erantzun nongoa den galdetu diogunean. Zamudion jaioa, Lutxanan eman zuen nerabearoa eta aspalditik Behekoan bizi da. 18 urte zeuzkala hasi zen antzetzokira igotzen rock banda ezberdinekin. Musikako lehenengo urratsak Beatles taldearen bertsioak egiten eman zituen Beethoven taldean. Gaur egun Zurt taldeko gitarrajolea dugu.

—Beethoven, As de espadas, Talion, eta orain Zurt... Talde asko ez da? Hori bizitzarekin batera doa, talde bakoitzak egoera eta garai bati egiten dio aurre eta oraingorak ere bai. Urte luzetan lasaiegi bizi ondoren nire bizitza astindu behar nuen eta horrela sortu zen Zurt taldea. Taldean, Jabi, Edu, Juan, Iker eta bostok elkartu ginen.

—Zein musika mota egiten duzue? Jendeak heavy klasikoa egiten dugula esaten du baina nire ustez egiten dugun musikak heavy-aren mugak gainditzen ditu. Folk eta trans-metalak doi bat ere lantzen ditugu. Gure musikaren iturria klasiko anglosaxonetik baino gehiago Ipar Europa eta Alemaniatik dator.

—Zeintzuk dira taldearen lanak eta asmoak? Taldea 2000n sortu genuen, sakelean nituen hamaika bat kanta kale-ratzeko asmoz, 2001ean Iz diskoetxearen eskutik "Itxaropena" izeneko CDa argitaratu genuen eta iaz, Durangoko azokarako, bigarren CDa kaleratu genuen, "Aurrera" izenburuz. Gure asmoa EHko herrietan plazaz plaza ibiltzea da, bai eta ohiko kontzertu tokietan egotea. Kafe Antzokian, Ibilaldian, eta horrelako leku eta ekimenetan ibiliak gara.

—"Aurrera", zergatik? Diskoari izena emate hutsaz gain, taldeak aurrera jo behar zuela adierazi nahi genuen. Lehia-kortasun handia dago euskal musikan eta guk ez genuen lasaitu nahi, "atxik eta jo aitzina" esan nahi genuen. Geroxeago, produktua ikustean, disko hura Euskal Herriak jasotzen dituen erasoei aurre egiteko erantzun egokia zela konturatu gara. Bakea, Euskal Selektzioa, jaiak, borroka, guztiak ere diskoaren abiapuntu bihurtu dira asko pentsatu barik. Aurreneko kantatan esaten dugun moduan "baikorra izatea da gakoa".

—Eta hiru urte hauetan garapen handia izan al du taldeak? Horretaz ere jendeak gauza bat pentsatuko du eta guk beste bat seguru asko. Nire ustez bigarren disko hau

«Zurt taldeak bigarren diskoa plazaratu du: Aurrera»

orekatuagoa da. Lehenengo gogorra zen, "heavya" baina honek baditu une lasaiek ere, akustikoagoa da eta nire uste apalean hobe da, agian, guk geuk ekoiztu dugulako, eta horrek erraztu egin du elkarren arteko lana. m

www.euskalnet.net/zurtegon



Herritar bat eskultura berriaren parean

Jado jaunaren omenez

eskultura berria paratu dute herrian

Martxoaren 27an Erandioko Altzagako Jado kalean, hain zuzen kale honi izena ematen dion Laureano Jado Ventades jaunaren omenezko estatua paratu zuten gure agintari eta auzokideek.

Izan ere, ezin du inork ukatu filantropo honen egintzek Erandion kale bat eta Bilbon enparantza bat eskaintzeko bezainbesteko garrantzia badutela: hari eskertu beharreko onegite batzuk ditugu, besteak beste, Bilboko Arte Ederretako sustatzailetako bat izatea edota "Fundación Jado"

eskolak Erandio herriari doan eman izana. Erandioztarrei eginiko ekarrien aldetik, aipatzekoa da "Jado" eskola hauena, funtsezkoak izan ziren-eta, garai latz haietan Erandioko umeei heziketa eta ikasketak eskaini ahal izateko.

25.000 euroko kostua izan duen eskultura eder hau Alfa-Arte Kolektiboak egin du, eta Erandioko agintariak beste kale batzuetara ere eraman nahi duten egitasmo handiago baten hasiera baino ez ei da. m

SOCIEDAD DEPORTIVA ERANDIO TALDEAK 1.000 BAZKIDE LORTU NAHI DITU

Futbol zale guztien topagunea da S.D. Erandio Club, eta ez garai batean bezala gizonezkoen txokoa: nesken futbol taldea ere hor dabil, eta ibili ere, gogotsu. Baina kirol erronkei eusteko futboleko jarduteaz gain beste baliabide batzuk ere behar direnez gero, bazkideza kanpainari ekin zion elkarteak duela hiru hilabete. Denboraldia amaitzera doa eta 99 bazkide baino ez dute behar 1000ko kopurua osatzeko. Iaz 500 bazkide zirela kontuan izanda, bada aurrerapena. Helburu horri begira ekimen berri bat hasi dute orain: herriko dendarri eta tabernariengana jo dute edozein bezerok erabili ahal izango duen bazkide txartel berezia eskaintzeko. Zale batzuk animatu dira, eta klubak bere buruari jarri dion erronka hori aurtengo denboraldian asetzen ez badute ere, datorren denboraldia hasi bezain laster bai lortuko dutela esan digu elkartearen gizarte arloaren ardura duen Cesar Pérez Toledok.

zure publizitatea hemen

94 491 13 37

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
<http://www.cianoplan.es>

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!



Bazkaria egin zen herriko ikastolan

Esaera Zaharren txapelketa

Joan den martxoaren 29an egin zen, urtero legez, Nikola euskaltegiak antolatutako Esaera Zaharren Txapelketa. Irudian ikus dezakezue Ander Deuna ikastolan egindako bazkaria. Horren ostean, goizeko saioetan sailkatutako lau taldeek finala jokatu zuten. Azkenik, *Badok Hamahiru* Berangoko taldea izan zen lau lagunentzako asteburuko bidaia eta afaria bereganatu zuena. 13 taldek eta 45 lagunek parte hartu dute hamargarren edizio honetan. Arratsaldeko saioa Maialen Lujanbio eta Fredi Paia bertsolariek girotu zuten. ^m

EUSKAL INTERNAUTEN ELKARTEA AURKEZTU ZUTEN HERRIAN

“Internet&Euskadi” euskal internauten elkarteak ezagutzera eman zuten Sopelan martxoaren 29an. Enpresa, unibertsitate, erakunde, gizarte eta kultur esparru zenbaitetatik sortu da elkarteak. Iritzi-foroa garatzea eta informazioaren teknologia berriak Euskal Herrian bultzatzea da “Internet&Euskadi”ren helburua. Elkartearen egoitza Sopelan dago, herriak dituen ezaugarri bereziengatik: besteak beste, internet-zale gehien duen udalerritako bat da Sopela.

Ezohizko solasgunea

Sopelako **Solasgune elkarteak** hezkuntza mundua erabiltzen du bere teoriak gauzatzeko



Solasgune elkarteko kide batzuk, Sopelan daukaten egoitzan

Sopelan dagoen Solasgune elkarteak beza-lakorik gutxi ezagutu ditugu gure inguruan; hasteko, bazkiderik ez dauzka. Heziketaren munduan egiten du lan eta elkarteko kidea den Pedro Blanco filosofo erromotzar gazteak azaldu digu Solasguneren abiapuntua: *“José Miguel Castro izeneko gizona aurkitu genuen Bilbon, eta bera entzun eta bere teoriak blai egin ondoren hasi ginen lanean”*.

Duela hiruzpalau urte *“heziketa sortzailea”* egin nahi zutela esan zioten euren bu-

Solasgunea

Elkartek **16 kide** ditu eta denetarik dago: filosofoak (Pedro Blanco bezala), soziologoak, psikologoak, pedagogoak, Arte Ederretakoak, etab. Martitzenero biltzen dira Sopelako **Bidebieta kaleko 5.enean**; *“solairua txiki geratu zaigu denok elkartzeko eta orain Leioara joatea pentsatzen ari gara”*.

Harremanetarako: 94 676 53 78

ruari. *“Ikastetxeetan mugitzen hasi ginen eta azkenean, Leioan aurkitu genuen atea irekita”*, dio Pedrok. Harrezkerotik, Leioan batez ere antolatu dituzte lantegiak eta proiektuak (azkenengoa amaitzeaz dagoen

«Orain hiru urte-edo hasi ginen heziketa sortzailea egiteko asmoarekin»

“Leioa 2003 Ikuspuntu” izan da), *“baina esperimendu batzuk ere egin ditugu Getxoko Behargintzan, langabeekin, ekintzaileekin eta abarrekin”*.

Hezkuntza izan da Solasguneren eremua bere teoriak gauzatzeko, baina hori alda daiteke. Pedro Blancoren hitzetan, *“gauzak ez daude oso argi gurean momentu honetan. Azken hiru urteotan konturatu gara zaila dela ikastetxeetan lan egitea, egitura itxiak dituztelako. Elkartean hausnarketa egiten ari gara eta ikusi dugu enpresetan aukerak egon daitezkeela”*. Solasgunek, beraz, aldaketa garaiki bizi ditu egun. ^m

Xabier Ugalde > Ander Deuna ikastolako zuzendaria

“Lege berriekin gure helburuak garatzeko modua aztertu behar dugu”



Argazkian, Xabier Ugalde

Xabier Ugalde gernikarra Arabako AEKko arduraduna izan zen 5 urtez, eta 12. Korrikaren antolakuntza ere bere gain hartu zuen. 2001etik Ander Deunako zuzendaria da eta, dioenez, “hemen ere badago lanik”

—Azken urteotan, aurrerapen asko egon dira ikastolan...

—Bai. Prozesu bat amaitu da, nik ia amaituta aurkitu dudana. Orain badaude beste lege batzuk, seguraski aldaketak eragingo dituztenak, baina era berean ikusi egin behar dugu lege horietan non daukagun lekua, non dauden mugak, eta horiek ondo aztertu beharko ditugu, azken batean ikastola garelako. Badauzkagu helburu batzuk ikastola garen heinean, eta horiek apurka-apurka garatzen joan beharko gara. —Zipiriñen sartzen ez ziren umeak hartzeko akordioa sinatu berri duzue udaletxeagaz...

—Guretat, akordio horretan garrantzitsua beste gauza bat zen: urtetan egon da harremana ikastola eta udalaren artean, eta guk harreman hori nonbait jasota utzi nahi genuen, idatzita. Bestetik, aztertu egin genuen zer gertatuko den hemendik aurrera 0-3 ziklo horrekin Sopelan, eta hau da guretat adostu den gairik garrantzitsua: edozein ekimen aurkezten dela, kontuan hartuko dela dagoen eskaintza, gurea barne.

—Ikastola honetan oso ezagunak dira gurasoek egin behar dituzten lanak...

—Hemen gurasoek egin dute dena: hormak altxatu, lurra erosi eta egokitu,... Momentu honetan ikastolak bi aukera eskaintzen ditu: gurasoek beren lanez osatzea ikastolak dituen behar batzuk edo —azken urteotan— lan horren truke dirua ordaintzea. Zer dauka ona, eta zer txarra? Zuzenean parte hartzea oso interesgarria dela, baina beti ez dela posible. Interesgarria izango litzateke guraso guztiek parte hartzea modu batean ala bestean. Ikastola honen tradizio sano bat da.

—2004ko Ibilaldia eskatu duzue, Betiko ikastolagaz batera...

—Bai. Inguru berean gaudenez gero, zergatik ez elkarrekin egin? Etorkizunari begi-

«2004ko Ibilaldia antolatzeko aukera handiak dauzkagu»

ra gero eta gehiago ikusten dugu elkarlana egin beharra, eta zentzu horretan aurrerapausua da. Atxikimendu ugari jaso ditugu eskualde mailan, eta aukerak dauzkagu. Datorren Ibilaldian esango da jendaurrean non izango den 2004koa. ^m

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari
supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:40-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:00

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

4 bide
pinturak



RIPOLIN

BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

Loteria
Sopela

Iparragirre 6, Sopela

LAIKAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela

Tlf. 94.6760328

GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Tellexe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Botilazaleei oldartzen


Udalak dagoeneko "oso larri" bihurtu den arazoari **aurre** egingo dio

Aurreko UKn "botiltzar" delakoak herrian sortu dituen buruhausteez egin genuen berba. Orduko hartan, momentuz irtenbiderik ez dela topatu esan genuen; duela gutxi, ordea, arazoari aurre egiteko lehen urratsak ematen hasi dira. Izan ere, Miren Dobaran alkatea harremanean jarri da Eusko Jauriaritzagaz erabakiak hartzeko asmoz. Uribe Kostako Mankomunitatetik adierazi dutenez, "oraingoz hartzen den neurri bakarria Udaltzaingoa edaten harrapatzen dituen gazteen izenak hartu eta gurasoei deitzea da, baina polizi-neurrietatik harago doazen konponbideak mahaigaineratu gura ditugu, benetan arazoa desagertaraziko dutenak". Dobaranentzat, "neurri sakonak behar dira, arazoa larria da eta". Alkateak proposatzen dituen ekimenen artean kontzientzia-hartze kanpaina dago. m

IBILALDI NEURTUA, APIRILAREN 27AN

Otxandategi dantza taldeak bere ibilaldi neurtuaren XXII. edizioa egingo du aurton. Apirilaren 27an (domeka) izango da, eta parte hartu gura duenak egun horretan Berangoko udaletxearen atari ingurura joatea besterik ez dauka. Goizeko hamarretan hasiko da ibilaldia, herriko mendietan zehar hamalau kilometro beteko dituen (umeentzat, zortzi). Arratsaldeko 3etan herri-bazkaria egingo dute ibiltarietako dantza taldearen egoitzan, eta sari banaketa 6:30etan hasiko da.

Informazio gehiago: 94 668 07 32



Manu Bilbao urtero-urtero hartu du parte, orain arte, Pasioan

Kristorenak egiten

Manu Bilbao berangoztarrak egingo du Jesusena aurtongo Pasioaren **antzezpenean**

Laster datorkigun Aste Santu honetan, Berangoko Pasioak 23. edizioa egingo du. Manu Bilbao ACADAEko kideagaz egin dugu berba, Pasioaz orohar eta berari aurton egokituko zaion zeregin garantzisuz. Izan ere, pertsonaia nagusia da Manu antzeztuko duena: Jesus.

"Lau edo bost urte dira Pasioa ACADAEk antolatzen duela", esan digu hasteko. Lehen, Pasión Viviente elkarteak egiten zuen, eta oraingo partaide asko orduko berak dira. Manu bera 23 edizioetan egon da, huts egin barik. Jesusena egiten eskarmenturik ere badauka: "1990 eta 1991n egin nuen".

Goi mailako aktoreen antzera, bizarra moztetari utzi behar izan dio. "Bizar gehienak enantsiak izaten dira, baina Jesusena benetakoa da, hainbeste bultzadagaz jausteko arriskua dagoelako". Errege egunean hasi zen bizarrari hazten uzten, baina lehenagotik zekien zein pertsonaia zegokion. "Urrian



egiten dira lehen bilerak eta azaroan entseguakaz hasten gara. Astebururo egiten ditugu". Ehun lagunek baino gehiagok antzeztzen dute Pasioa, ez denak Berangokoak, "herrikoek ez diete-eta gure deialdiei kasurik egiten". Ostiral Santuan (apirilaren 18an), gaueko 9'30etan izango da antzezpene, elizaren inguruetan, eta ikuslerik ez da faltako: "5.000 eta 10.000 artean etorten dira urtero". Horra pasioa. m

Musikariei zuzendua

Iván Corcuera **leioaztarrak** grabazio eta entsegu lokala zabaldu berri du herrian

Biologia ikasketak burutu ditu, baina benetan gustatzen zaiona musika da: "Hamar urte daramatzat musikagintzan, azken seiak Valhalla taldean". Heavy klasiko samarra jotzen dute, hirugarren diskoa kaleratu dute duela gutxi eta entseguak era askotako lekuetan egitea egokitu zaie, ez denak atseginak. Horregatik, Iván Corcuera 25 urteko leioaztarrari (bateria-jolea da bera) musikarietako ganorazko grabazio eta entsegu-toki bat antolatzea bururatu zitzaion duela urtebete-edo. Tira, horregatik, eta "musikatik bizi gura nuelako baina taldetik ezinezkoa zela konturatu nintzelako".

The Image diskoteka ezagunaren eraikin berean dago Grabasonic estudioa, eraikinaren goiko aldean, eta atea oraintsu zabaldu ditu. Taldeei jotzeko hamar gela eskaintzen dizkie, batzuk hilabeteka eta beste batzuk orduka (bateria, tresneria tekniko eta guzti), eta grabazio-areto digitala dauka,



Argazkian, Iván Corcuera

"maketa, diskoa, edo dena-delakoa grabatu ahal izateko". Dena ez da lana ordea; atse-denerako tartea ere izango da Grabasonic-en, beren-beregi horretarako atondutako gu-netxo bat edukiko du-eta. m

Harremanetarako: 607 24 50 23

X. NEKAZARITZA ETA ARTISAUTZA AZOKA

Datorren maiatzaren 4an (domeka) Otxandategi dantza taldeak X. Nekazaritza eta Artisautza Azoka antolatuko du Berangoko Elexaldeko landan. Iaz 54 erakusleku egon ziren, eta antolatzaileen esanetan, "aurton kopuru berdintsua etorea espero da". Gazta, txakolina, ezitia, egoskariak, ogia, artisautza-lanak... denetarik ikusi, dastatu eta erosteko aukera egongo da goiz osoan. Gainera, giroa musikaz alaituko da eta umeentzako jolas-parkea paratuko dute. Azokaren amaieran Euskal Herriko Euskal Opil txapelketaren sariak emango dira. Aurtongoa bosgarren urtea du azokak.

2002ko edizioan 54 erakusleku ipini ziren



aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIVERSARIO URTEURRENA

AENOR
Empresa Registrada
ER-1891/2001

AENOR
Gestión Ambiental
CGM-02/006

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

etorri
eta
ikusii!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

**TXIBERRI
edantokia**
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA

[herriak]

PLENTZIA

Herriaren zati garrantzitsua museoan



Plentziako Itsas Museoa

Duela lau urte eta erdi zabaldu zen Plentziako gune historikoan dagoen Itsas Museo (Goienkale, 25). XVI. mendeko eraikin batean dago, aspaldian herriko Udaletxea izan zen eraikinean, hain zuzen. Toki askotatik etorritako 3.000 bat lagunen bisita izaten du urtero museo honek.

Betidanik itsasoarekin harreman estua izan duen herri honen historiaren hainbat osagai berreskuratzea eta erakustea da Itsas Museoaren helburua. Berton, nabigazio tresnak, itsasontzien maketak, kartografia eta Plentziako Artxibo Historikoaren agiriak, besteak beste, daude ikusgai. Bestalde, aldi baterako erakusketa berri bat prest izatea espero dute ekainerako, feniziar arotik

egungo garaira bitartean egon diren hainbat itsasontzi mota bilduko dituen.

Barikuetan (17:00-20:00), zapatuetan (11:00-14:00 eta 17:00-20:00) eta domeketan (11:00-14:00) dago irekita. Hala ere, ikustaldi gidatuak (eta debalde) eska daitezke lanegunetan 609 350 175 telefonora deituta; Uribe Kosta Institutuan turismo ikasten diharduten ikasleek gidatu ohi dituzte bisitaldiok. m

«Urtero 3.000 bisitari baino gehiago hartzen ditu Plentziako Itsas Museoak»

BARRIKA

Kontsultategiaren ordutegiak

Mónica García medikua eta Charo Iglesias erizaina Barrikako kontsultategira doazen gaixoez arduratuko dira martitzenero, goizeko 8:30etik 10:00etara; barikuetan, berriz, Fernández Etxebarria doktorea eta Kontxi Garalde erizaina izango dira kontsulta eskainiko dutenek, eguer-

diko 12:00etatik 13:30era. Kontsultategira joan behar dutenek alde aurretik eskatu beharko dute hitzordua Plentziako ambulatorioan, ondorengo telefono zenbakietara deituz: 94 677 25 65 edo 94 677 30 37; hortxe arduratuko dira larrialdiez ere. m

Apirilak 11-30

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

[agenda]

ANTZERKIA

BERANGO

► **100 años de perdón.** Ekitaldi aretoan. Apirilak 30, eguaztena. 20:00. *Oliver Productions*-en eskutik.

GETXO

► **Elmer elefantea.** Getxo Antzokian. Apirilak 13, domeka. 12:00etan gaztelaniaz eta 17:00etan euskaraz. *Teatro de la Luna*-en eskutik. Umeentzat.

ERAKUSKETAK

GETXO

► **La brocha azul.** Algortako erakustaretoan. Apirilaren 15ik 26ra.

► **Erromoko jai batzordea.** Erromoko erakustaretoan. Apirilaren 22tik maiatzaren 10era.

► **Antzezaleak elkarteko kideak.** Algortako erakustaretoan. Apirilaren 28tik maiatzaren 10era.

► **Erromoko institutuko ikasleak.** Erromoko erakustaretoan. Apirilaren 28tik maiatzaren 10era.

ERANDIO

► **Zubia Artelekuko ikasleen pintura erakusketa.** Udaletxeko erakusgelan. Apirilaren 22tik 30era.

LEIOA

► **Gorka eta Adirane Alavaren margolanak.** Sakoneta Kultur Aretoan. Apirilaren 14tik 25era.

PLENTZIA

► **Técnicas mixtas.** Goñi Portalen. Apirilaren 15etik 30era. Ainhoa Izaren eskutik.

SOPELA

► **Unai Azkuneraren margolanak.** Erakusketa aretoan. Apirilaren 16tik 30era.

MUSIKA

BARRIKA

► **El desván.** Golfo Norte-n. Apirilak 12, zapatua. 23:00.

► **Lado Sur.** Golfo Norte-n. Apirilak 26, zapatua. 23:00.

► **Rockadelica.** Golfo Norte-n. Maiatzak 3, zapatua. 23:00.

ERANDIO

► **Laredoko Salve abesbatza.** Andra Mari elizan. Apirilak 26, zapatua. 20:00.

GETXO

► **Pio Lindegaarden omenezko kontzertua.** Mark Turner&OAM Trio.

► **MUSIKA**

Pub Ibiltaria Getxora ailegatuko da

Oskorriren The Pub Ibiltaria ikuskizunaz gozatzeko modua egongo da Getxo Antzokian apirilaren 30ean. The Pub Ibiltaria-n Oskorrikoek ikusleei ematen diete protagonismoa, taldekoakaz batera kantatzeko eta musika-tresnak jotzeko aukera dago eta. Betiko abesti ezagunak entzun ahal izango dira emanaldian: "Boga, boga", "Ama, buruan min dut", "Ardoa eta gizona"...

Non: Getxo Antzokia • **Noiz:** Apirilak 30, eguaztena • **Ordua:** 19:30

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Apirilak 26, zapatua. 20:00.

GORLIZ

► **Lirain abesbatzaren emanaldia.** Elizan. Apirilak 19, zapatua. 20:00

LIBURU AZOKA

GETXO

► **Liburu Azoka.** Algortako Geltokiko plazan. Apirilak 23tik 27ra. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-21:00. Getxoko argazki zaharren erakusketa, orrialdeak markatzeko erakusketa, umeentzako tailerrak...

IRTEERAK

BERANGO

► **Ubidetxe aterpetxera irteera (Ubidetxe).** Apirilak 25, 26 eta 27. Santa Anako Gaztelekuak antolatuta.

ERANDIO

► **Jesuri mendira irteera (Orozko).** Apirilaren 20an (domeka). Mendigoizaleak taldearen eskutik.

PLENTZIA

► **Gasteizera irratiztera.** Apirilaren

► **Reykjavik.** Getxo Antzokian. Apirilak 25, barikua. 22:00.

BESTERIK

BERANGO

► **Pasioaren antzezpena.** Elizaren inguruan. Apirilak 18, barikua. 21:30.

► **Ibilaldi neurtua.** Irteera udaletxetik. Apirilak 27, domeka. 10:00. Simón txandategi dantza taldeak antolatuta.

► **X. Nekazal eta Artisautza Azoka.** Udaletxearen aurreko zelaian. Maiatzak 4, domeka. Goiz osoan zehar. Simón Otxandategi dantza taldeak antolatuta.

ERANDIO

► **Moda pasarela.** Altzagako kiroldegian. Apirilak 25, barikua. 20:30.

GETXO

► **Txirrindularitza.** IX. Getxo Saria. Gazte mailakoa. Apirilak 20, domeka. 10:30. Punta Galea taldeak antolatuta.

► **Txirrindularitza.** XII. Punta Galea Saria. Kadete mailakoa. Apirilak 26, zapatua. 10:30. Punta Galea taldeak antolatuta.

► **Ipuin kontalaria.** Rosa M^a Martínezek *Ilargiaren Lapurra* ipuina kontatuko du. Liburu Azokan. Apirilak 24, eguena. 18:00. Euskaraz.

► **Ipuin kontalaria.** Rosa M^a Martínezek *Cuéntame un Cuento* ipuina kontatuko du. Liburu Azokan. Apirilak 27, domeka. 18:00. Gaztelaniaz.

GORLIZ

► **Ipuin kontalaria.** Joxemari Carrere. Erakusgelan. Apirilak 26, zapatua. 18:30.

► **Valentziako Arte eta Zientzien Hirira bidaia.** Maiatzaren 1etik 4ra. Izen ematea Kultur Etxean.

ZINEMA

GETXO

► **Apocalipsis Now Redux.** Getxo Antzokian. Apirilak 16, eguaztena. 20:00.

► **Bloody Sunday.** Getxo Antzokian, apirilaren 23an (eguaztena), eta Areetako Gran Cineman, apirilaren 24an (eguena). Biak 20:00etan.

Zenbat Gara elkarte

Kafe ANZOKIA

BILBO
San Vicente 2 48001 BILBO
Tel: 94 424 46 25 Fax: 94 424 28 02

ONDARROA
Iparragirre 10 48700 ONDARROA
Tel: 94 683 41 41 Fax: 94 613 44 43
www.kafeantzokia.com



Sorginak uxatzeko gurutzeak paratzen ziren baserrietako teilatuetan



Beharginek obren teilatuetan zuhaitza ipintzen dute

Sinis dezagun

Zeozertan sinistu behar eta... John Lennon-ek ezertan sinisten ez zuela esaten zuen (bere buruarengan izan ezik); beste batzuek, berriz, sinisgai ugari daukate aukeran, irudiotako adibide xumeek erakusten dutenez. Hamaika erlijio txikik inguratzen gaituzte, bakoitza bere eremuagaz, bere funtzioagaz, bere esanguragaz. Eta siniskeria esaten zaie, sinistea txarra balitz bezala. Azken batean, zer da, bada, sinismen bat?

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Gorpuzti egunean izara zuriak eskegitzen dira Portu Zaharreko balkoietan



Etxea babesteko ipintzen da eguzkilorea ateetan



San Kristobal egunean lore sortak paratzen dituzte gidariek autoetan



Ogi salutarrea; ogi kuxkurre mantel azpian gordetzen da Gabon egunean. Hurrengo urteko egun berean txakurrei emoten zaie amorratu ez daitezen



Zamako gaitzak urruntzen ei ditu San Blas kordelak

Irratiko langilea da. Duela 15 urte lanpostua aldi baterako uzteko baimena eskatu zuen, kargu publikoa zeukala eta. Oraindik ez da itzuli. Emakunde erakundeak oraingoz izan duen zuzendari bakarra dugu, donostiarra jatorriz eta 58 urtekoa adinez. Betidaniko feministatzat aldarrikatzen du bere burua, eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaz berba egitean gustura dagoela igartzen zaio. Martxoaren 20an hitzaldia eman zuen Berangon; horren aurretxoan geugaz egon zen, ondoan doazenak eta askoz gehiago esaten, umoretsu bezain koherente, eta, beste ezeren gainera, emakume.

Emakumezko bat

Txaro Arteaga

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Ai gazteak...

Duela pare bat urte Emakundek gazte jendearen azterketatxo bat egin zuen, eta "oso emaitza interesgarria atera zen". Ia gazte guztiak barneratu ei dute berdintasunaren diskurtsoa; hala ere, sakoneko ikerlan batek oraindik hutsune asko daudela frogatzen du. Borondate ona ez da nahikoa "bizitza osoan etxean ikusi dutena eredu zaharra izan bada". Praktikan, oso gazte gutxi hartu du benetako jarrera aktiboa berdintasunaren alde, batez ere gizonezkoen artean. "Eta oraindik badaude gauzak dauden bezala oso ondo daudela esaten duten baten batzuk". Neskek, berriz, "ez dute onartu nahi baztertua daudenik, horrek amorru pixka bat ematen dielako". Belaunaldi berriek arazoa gaindituta daukatela uste dute, baina azterketa horrek agerian utzi du asko falta dela oraindik.

—Gaurko hitzaldiak "politika publikoak eta berdintasuna" dauka izenburua. Zergatik 2003an oraindik berdintasunari buruzko hitzaldi bat eman beharra?

—Begira, hau oso gai berria da. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ez da gai politikoa izan orain dela gutxi arte. Nazio Batuetan 1975ean hasi zen aztertzen, eta hortik aurrera hasi ziren pentsatzen desberdintasuna mundu osoan zela errealitate gogorra. Hortik aurrera, zenbait tokitan berdintasuna bultzatzeko era guztietan

halako erresistentziak zeuden (eta oraindik jarraitzen dute), eta batzuk kontra azaltzen ziren. Gogoratzen naiz batzuek esaten zutela ez zela behar aurrekonturik honetarako, arazoa gaindituta zegoela dagoeneko, eta oraindik badaude hori esaten dutenak. Baina asko aldatu dira gauzak; zorionez, urte hauetan, ezerezetik hasita, gaia agenda politikoetan jarri da, eta ez hori bakarrik, planak eta egiturak sortu dira administrazio barruan asmo horiek aurrera eramateko.

—Eta zein da hurrengo pausua?

“Berdintasuna agenda politikoetan sartzea lortu dugu, eta ez da gutxi”

ko erakundeak sortzen hasi ziren. Hemen bazeuden emakume elkarteak, eta horien ekimenez sortu zen Emakunde.

—Zelakoa izan zen zuen lana hasiera hartan?

—Hasi ginenean ez zegoen ezer. Administrazioaren barruan ez zegoen sensibiltziaziorik, eta ez hori bakarrik, kasu askotan

—Legea. Datorren hilabeteen-edo aterako dugu zirriborroa, eta ondoren gizartearen iritzia jasoko dugu. Guztiok adostutako legea egiten saiatuko gara. 14 urte hauetan lortu dugun esperientzia eta jaso ditugun eskakizunak sartu ditugu hor, eta orain bideak jarri nahi ditugu, hori guztia abian jartzeko tresnak.



Txaro Arteaga erakundearen sorreratik da Emakunde-ko zuzendaria

—Defini ezazu berdintasuna, edo desberdintasuna, berdindut...

—Gure gizarteak rol desberdinak jarri ditu emakumeentzat eta gizonezkoentzat. Emakumeen arloa etxekoa da, familiakoa, pertsonen zaintza, ordaindu gabeko lana... eta gizonena, ostera, arlo publikoa, familia mantentzea ordaindutako lan batekin, boterea dagoen gunetan jardutea... Rol banaketa hori oso aspaldiko gauza da, eta

gizon eta emakumeak balore eta eredu desberdinen arabera gizarteratzea eragin du. Orain, belaunaldi bakar baten buruan ia-ia, eredu berri batera igarotzen ari gara, eta eredu horretan lortu nahi dena zera da: gizon eta emakumeok batera jardutea eremu publikoan eta pribatuan. Baina mendeak dauzkan gizarte eredu batetik, belaunaldi bakar batean, eredu berrira igarotzea oso zaila da. Ez dira pertsonen jokabideak eta

jarrerak soilik aldatu behar, egiturak ere aldatu behar dira, aurreko ereduaren arabera antolatuta baitaude. Aldatzen hasia da gauza, baina historiaren ikuspegitik politika publikoko 14 edo 15 urte ez dira ezer.


—Eta zelan lortuko da aldaketa hori?

—Lehendabizi, norberaren jarrerak aldatuz. Gero, administrazioak badu bere erantzukizuna: pertsonen askatasuna garatu ahal izateko baldintzak sortzea. Eta gure lana, Emakunden, hitz bitan azaltzea zaila den bultzada hori ematea da. Guk gizartearen eskaria sortarazten dugu, eta politikariak gizartearen eskaera dagoela ikustean mugitzen dira. Aldi berean, administrazioari egitarau eta proiektuak abian jartzeko tresnak ematen dizkiogu. Normalean ikusten ez den lan bat da.

“Gizartea lehengo eskemen arabera antolatuta dago oraindik ere”

—Elkarrizketan zehar behin ere ez duzu esan “matxismo” berba, eta “feminismo”, edo “feminista”, birritan baino ez. Zergatik? Ez dute balio?

—Bai, balio dute, baina ni jendea nireganatzen saiatzen naiz, eta hasieratik erabiltzen badituzu matxista bezalako hitzak, kontra ipintzen duzu zurekin hitz egiten ari dena. Gainera, matxismo eta feminismo hitzak oso ustelduta daude. Feministok kritika asko jasotzen ditugu feminismoaren benetako esanahiaz ezezagutza handia dagoelako. Askorentzat feminista izatea gizonen aurka egotea da, eta ni ez nago gizonen aurka. Egotekotan, gizarte patriarkalaren aurka egon naiteke, eta oro har emakumeok baztertu ez ezik gizon zein emakumeak mugatzen gaituen sistema honen aurka. Gizonak ere mugatu egiten zaituztelako, bai, batez ere sentimenduen alorrean. Ea noiz konturatzen zaretel! m




Irudi literarioak



Noël Rubianes

Orain gurean bizi den Noël Rubianes sortzaile argentinargazteak utzi digu argazki sorta eder eta sugerente hau. Lanok, Herman Hesse idazlearen "El lobo estepario" liburua dute inspirazio iturri.





zine**eskola**

Oskar Fernández

AEBetako ohiturak
zinema aretoetan

Ameriketako Estatu Batuetan segur aski ohitura onak egongo dira, baina zoritxarez gure artean hedatzen diren guztiak ez dira, inondik inora, halakoak. Bat aipatu nahi nuke, zinemaren ingurukoa. Urteak dira gure zinema aretoetan guztiz ganoragabea iruditzen zaidan ohitura hau zabaldu dela: filma ikusten den bitartean gelditu gabe jaten edo edaten egotea. Gaur egun, berdin da zein emanalditara goazen beti irudi bera topatuko dugu: umeak, gazteak, helduak, denak esku batean edaria daukatela eta bestean boltsa handi bat. Nire uste apaLEAN, ohitura gaitzesgarri hau galara zi egin beharko lukete. Ikus ditzagun zergatiak: Lehenengo, eta niretzat hau da garrantzitsuena, zinema aretoan entzun behar den gauza bakarra, usaindu behar den gauza bakarra, sentitu behar den gauza bakarra, pantallatik atera behar da. Eskubide osoa daukagu, eta legeak erabat babestu beharko gintuzke horretan, nahi dugun filma baldintza egokienean ikusteko, baina zoritxarez gaur egun "zazpigarren arte"-ari ez diogu bat ere begirunerik. Edozein gauza jan edo edan nahi dutenek eskubide osoa daukate hala egiteko, jakina, leku pribatueta, baina ez publikoetan. Beraz, haien etxeko telebista aurrean nahi dutena egin dezatela, baina ez zinema aretoetan. Onartuko genuke operan edo kontzertu klasiakoetan ikusleak jaten edo edaten ibiltzea? Hurrengo zenbakian arrazoi gehiago ekarriko ditut. ⁴

Zinemarekin **ikasten**

Irudi Biziak elkarteak 18 urte daroaz pelikularik berrienak ematen **derrigorrezko hezkuntzan**

Manolo Haba sopoloztarra 1985ean hasi zen Irudi Biziak elkartearen lanean, hau da, elkartea sortu zen urte berean. Orduan sei udalerritan bakarrik egiten zuten behar, gaur egun, berriz, EAEko 35 udalerritan eta 206 ikastetxetan dabilta; Kantabrian eta Asturiasen ere badaude. "Fikziozko zinema berrienaren enabileria didaktikoa abiapuntutzat hartuz", dio Manolok, "ikasleen garapen osoari lagundu nahi diogu, nor bere irizpideak izatera heltzen laguntzeko".

«**Filmek gutxienerako kalitatea eduki behar dute, baita zerbait kontatu ere**»

Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa dira Bilboko elkarte honen lan-esparruak. Ikasturte osoan filmak botatzeaz gain, material didaktikoak ere argitaratzen dituzte, "neskumutilek pelikularen gaiaren inguruan hausnarketa eta eztabaida egin dezaten".

Irudi Biziak elkarteak film ezberdinak programatzen ditu ikasleen adinaren arabera. "Gutxienerako kalitatea eduki behar dute eta zerbait kontatu", dio Manolok. Ikasleek




Irudi Biziak-ek filmak ere bikoizten ditu

eskola-ordutegian joan behar dute zinema- pelikula horiek ikustera, gaztelaniaz zein euskaraz. Ildo horretatik, elkarteak hiru urte daramatza filmak euskarara bikoizten; azkenengoak *Billy Elliot*, *El Bola*, *American History X* eta *La lengua de las mariposas*, izan dira. ^m

Besteak beste Getxoko ikasleentzat emanaldiak eskaintzen ditu Getxo Antzokian elkarte honek. Behean azkenengoak:

- **Maiatzak 7:** *Quiero ser como Beckham*
- **Maiatzak 8:** *Jóvenes aventureros*
- **Maiatzak 12:** *Doraemon*

Ez galdu > Bloody Sunday (Paul Greengrass)Zinekluba • **Non:** Areetako Gran Cinema eta Getxo Antzokia • **Noiz:** apirilak 23 eta 24 • **Ordua:** 20:00

Film honen arduraduna Paul Greengrass zine-zuzendari, kazetari eta idazle britaniarra da. Duela hamar urtetik hona ekoizle aritu da *World in Action* dokumental-sailean. IRAko kideek Mazeko espetxean egindako gose greba filmatu zuen lehena izan zen Greengrass, eta hau da egiten duen hirugarren film luzea. Filmak kontatzen duen istorioa, zoritxarez, egiazkoa da. Irudiek daukaten magiaren bidez Ipar Irlandan kokatuko gara: 1972ko urtarrilaren 30an gaude, hamahiru pertsona hil dituzte Derry-ko kaleetan eta beste hamalau lagun armada britaniarraren balek zauritu dituzte. Egun hori Bloody Sunday izenaz ezagutzen da. Gertaera bortitz eta zorigaitzokoa hau tankera erakargarri eta hurbilean kontatzen digu Greengrass-ek.

Taldea > Patada en la papada

Argazkian, taldeko kideak

Eskualdeko punk basatia

Nondik dator izena: "Bat-batean sortu zen. Egunerok aldatzen genuen izena eta azkenean hau sortu zen, arrazoi berezirik gabe taldea horrela deitzea erabaki genuen". **Noiz hasi ziren:** "Hiru urte daramatzaugu gu lauok elkarrekin. Hala ere, hasiera batean txantxetan hasi ginen, eta Eder sartu zenean serioago jardutea erabaki genuen". **Taldeko kideak:** Mikel (gitarra eta abeslaria), Atxo (bateria), Unax (gitarra) eta Eder (baxua). **Gustukoa dute:** "Bakoitzak bere estiloa dauka, eta estilo horiek egiten dugun musikan islatzen dira". Hala ere, *Kierosilenziori* rock usaina dario. **Eginiko diskoak:**

Seguru asko apirilean kaleratuko dute maketa. Honetaz gain, Lleidak banaketa enpresa batek egingo duen bilduma batean ere euren abesti bat sartu dute. **Besteak beste, jo dute:** Leioako Udondo gaztetxean, Bilborocken, Erromoko Donosti Tabernan, Etxebeltzen... **Euskal musikaren egoera:** "Oso zaila da aurrera urtetea, ez baitago inolako laguntzarik. Udaletxeak oso gutxi egiten du bertako taldeak bultzatzeko, esaterako jazz jaialdia egiten den bezala, ez dago Getxoko taldeentzako jaialdirik". ^m

Harremanetarako: 647 744 825 (Mikel)

diskoak

Mary star of the sea
Zwan
Reprise



Smashing Pumpkins-eko abeslari ohiaren talde berria da Zwan, Billy Corgan-ena hain zuzen ere. Hamalau abesti daukan lehen disko honek Smashing Pumpkins-eko garaikoa dirudi nabarmen: kantatu daitezkeen abestiak, soinu gogorra eta gitarra asko. Pop erakoak ere badaude tartean, "Honestly", esaterako.

Life in other planets
Supergrass
EMI



Gaztea izan arren, Erresuma Batuko talde honek ia hamar urte daramatza diskoak egiten; honokoa laugarren lana dugu. Gaz Combes (ahotsa eta gitarra), Mick Quinn (baxua) eta Danny Gofey (bateria) taldekideek 12 abesti bikain eta sutsuez osatu dute diskoa. Horrela, hasieran zuen indarra berreskuratzen du taldeak.

Fotopoemak
Joseba Gotzon



Disko honeguz, Marrodán Olerki Elkarteak omenaldia eskaini gura izan dio Portugaldeko Mario Ángel Marrodán-i, olerkigintzan 50. urteurrena bete duela ospatzeko. Musika munduan ia 20 urte daroazen Joseba Gotzoneren zortzigarren lanak hamar abesti ditu, guztiak Marrodán olerkariak idatzitakoak.



Jazz-zaleen ezinbesteko hitzordu bihurtu da Getxoko Jazzaldiko arima izan zen Pio Lindegaard-en omenez Kultur Etxeak urtero antolatzen duen kontzertua. Aurten, musikari bikaina gonbidatu dute omenaldian jo dezan: Estatu Batuetako Mark Turner saxofoi-jole ospetsu eta zoragarria. Kontzertuan bere azken diskoak (*Drama days*) kantuekin gozatzeko aukera izango dute entzuleek.

Apirilak 26 zapatua, 20:00, Andrés Isasi, Areeta**Musika > Leioako pop-rock lehiaketa**

Hilaren 25ean amaituko da Leioako III. Pop-Rock Lehiaketarako maketak aurkezteko epea. Lerro hauek idazterakoan, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Madrilgo 12 talde aurkeztu dira (zortzi pop-rock atalean eta lau, berriz, metalean). Irabazten duten talde biek 1.500 euroko saria jasoko dute. Parte hartu gura dutenek posta ziurtatuaz bidali behar dituzte maketak Aterpe Leioa Gazte Bulegoaren helbidera (Sabino Arana, 48 - 48940). Iazko irabazleak *Paramental* eta *Ehiztari* beltza taldeak izan ziren, pop-rock atalean eta metalean, hurrenez hurren.

Argibideak: 94 480 55 17**BEHIN BATEAN****LIBURUDENDA**Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Lagun bati gutuna

Zaila da bizitzea egokitu zaizkigun egun hauetan literaturaz idatzi eta mezu baikorrik helarazi nahi izatea. Zaila da liburu bat hartu, eta buru belarri horretara jartzea. Bertold Brechten hitzak aldatzea gustatuko litzaidake. Geure buruei, behin eta berriz, “ez dira garai onak lirikarentzat” errepikatzeari uztea. Eguneroko bizitza ikatza bezalako labezomorroak isurtzen hasi zen egun hura betiko gainditu, eta aurrera egin. Literatura literatura izango den garaira iritsi, eta, eztabaida antzu eta mingarrietan erori beharrik gabe, aurrera egin.

“Ez naiz heroi jaiotako, ez naiz biktima jaiotako”, dio Ruper Ordorikak bere abesti batean. Zeuk ere, J.L. hamaika aldiz errepikatu didazu lelo bera, hitz horiekin izan ez bada ere, antzekoak erabili. Oso gustukoak ditut izaten ditugun eztabaida literarioak, mundua konpontzen ibiliko bagina bezala, egun batetik bestera horrelakorik lortzea ezinezkoa dela jakin dakigun arren. Baina tira, ondo pasatzen dugu, ezta? Aurrekoan, Etiopia-ren urteurrena zela-eta orduko kontuez idazten ari nintzela pixka bat deprimitu nintzen. Hogeita bost urte igaro diren arren, gauza batzuk ez dira aldatzen. Nork esan zuen gizakia dela harri berarekin bi aldiz estropozu egiten duen izaki bakarra dela? Gogoratzen al duzu zeuk? Bada, arrazoia zeukan. Zorionez, sormena aurrera doa. Garai latzenetan ere. Honezkerok jakingo zenuen hil honetan Sautrela itzuliko dela. Dituen bitartekoekin, telebistak gehiago egin zezakeen letren alde, baina ez gara orain kekuka hasiko. Tartetxo bat eskaini digute, eta hobe hori ezer ez baino. Gainera, denboraldi berriari begira aldagetak datoz, eta beraz, elkartzeko garen hurrengorako izango dugu zertaz eztabaidatu. Beti bezala, literaturaren inguruan. 3

Van Hoff Getxon

Unai Elorriagaren lagunak bere bigarren nobela ospatu zuten **Kurkudi** liburudendan

Iñaki Ondarroat Algortako Kurkudi liburudenda txiki eta maitagarriaren jabeak eta bere emaztea den Matxalen Amas-ek egin zuten deialdia. Aitzakia, lagun handi duten Unai Elorriaga idazle sarituaren bigarren nobela argitaratu ematea: *Van Hoff-en ilea*. Hara bildu ziren martxoaren azken barikuan egilearen eta anfitrioiaren lagunak, Unaiaren nobela berriaren nondik norakoak ezagutzeko. Liburuaren aurkezpena institutuaren idazlearen

irakaslea izan zen Jokin de Pedrok egin zuen eta argi geratu zen ikasle izandakoaren lana ederto ezagutzen duela. Ondoren Unai hartu zuen berba eta Jokini eskerrak eman eta segituan, “*zain ditugu pintxo gozoak, goazen!*”, bota zuen, eta ez zuen besterik esan beharrik izan: Iñakik eta Matxalenek jaki gozoz hornitutako mahai inguruak berehala bete zituzten literaturazaleek.

Eta pintxoak oso gozoak izan ziren. m

Aurkezpen egunean hartutako irudiak



Argazkian, Aitzpea Goenaga

Aitzpea Goenaga > aktorea

“Eskerrak antzerkigintzan ekimen pribatua dagoen”



Martxoaren 6an Getxo Antzokian egon zen Aitzpea, berak eta Elena Iruretak idatzitako *Hau paraderoa!* taularatzeko. Guk aukera hori baliatu genuen idazle moduan ere (gidoiak, antzerkia, umeentzako liburuak...) trebezia handia daukan emakume honek berba egiteko. Berak, hala ere, hasieratik aktoretzat definitu zuen bere burua: “*Idazten denbora gehiago ematen dut, baina aktoregintza da nire lehen lanbidea*”.

egin duguna. Beste maila bateko egitura beharko litzateke, euskal zentro dramatiko bat edo halako ahalegin bat, beste mota bateko antzerkia ere jasoko lukeena euskara hutsean.

—Euskaldunok badugu antzerkirako ohiturarik?

—Bai. Ez dut uste euskal mundu guztia antzerkizalea denik, beste edonon gertatzen den bezala. Baina badago jende bat

«**Euskal zentro dramatiko bat beharko litzateke**»

oso antzerkizalea dena, ni neu esaterako. Jende askok jarraitzen du antzerkia, gustokoa du eta ulertu egiten du. Getxon bertan, zuek, antzerki asko ikusten duzue. —Umeentzako lan asko egin dituzu. Zailagoa da?

—Beste ikusle mota bat da. Nik oso gustoko dut hurrekin lan egitea, baina ez nuke hori bakarrik egingo. Haiekin lan egitea lehengo antzerkiaren modukoa da, gustatzen ez bazaie protesta egiten dute. Eta oso esker onekoak dira.

—Artikulu batean esan zenuen euskal zinematik *Txoriwood* bat beharko zuela...

—Orain gutxi plazaratu dira datu batzuk, beste kanal autonomikoek telebistako serieak egiteko zenbat diru ematen duten eta hemen horretarako zenbat ipintzen den, eta aldea ikaragarria da. Antzerkiaren arloan gauza bera da. Eskerrak ekimen pribatua ondo dabilela, eta jende asko buru-belarri ari dela lanean, maila handia emanez eta hemendik kanpora mugituz. Nik uste dut ahalegin hori nahiko *kami-kazea* dela. Gezurra badirudi ere, beste kultur arlo batzuetan izaten diren dirulaguntzak ikusita, arlo honetan nahiko atzean gaude. m

—Aurkez ezazu zeure burua...

—Aitzpea Goenaga naiz, aktorea naiz, 43 urte dauzkat eta donostiarra naiz.


—Zelan doa *Hau Paraderoa!*?

—Oso harrera ona izan dugu jendearen aldetik. Horrelako gauza bat egitean inoiz ez da jakiten zer nolako harrera izango duen, eta egia esan espero genuen baino gorago egin dugu. Gure helburua, alegia, jendeak ondo pasatzea, betetzen da.

—Euskal aktore asko umoreari lotuta agertzen zarete, ezta?

—Irudipena izango da. Ni, esate baterako, joan den urtean umore gutxi zeukan beste antzezlan batean aritu nintzen lanean. Gertatzen dena da antzezlan bat ekimen pribatu modura egiterakoan, biziraupenera jo behar dela dudarik gabe. Guk euskaraz bakarrik egin nahi genuen *Hau Paraderoa!*, eta ez daukagu inolako dirulaguntzarik. Emanaldiak egin ahal izateko, antzerki maila erraz batera jo behar da, bai hizkuntza aldetik, bai planteamendu aldetik, bai egitura aldetik, eta hori da

liburuak




Kafka Bilbon
Pedro Alberdi
Alberdania

Izenburuaz gain, *Kafka Bilbon* bilduma honetan dagoen narrazioetako bat da. Horrez gain, gainontzeko sei kontakizunetan ere agertzen da moduren baten edo bestean idazle txekiarrak.



Izarrari nahi ez zuen printzesa
Felipe Juaristi
Alberdania

Morroi arrunta da ipuin honen protagonista. Usadioak dienez, bazen behin, herri batean, lo zegoen printzesa bat eta hura iratzartzea lortzen zuena berarekin ezkondu eta errege izango zen...



Denboraren izerdia
Xabier Montoia
Elkar

Aldeko du haizea Jon Ezenarro protagonistak: zinema-produktore arrakastatsua da Madrilan, ezkontzekotan da eta maitale bat dauka. Amets hori, ordea, zapuztu egingo zaio bat-batean.

01 SOPELNETs.L.



Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥

ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknikoak
kontsumitzeko gaiak, zuzur

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

94 676 00 62- Fax:94 676

BILBO MICRO



“1982az geroztik
soluzio
informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

[sarean]

Nabigatzeko untziak

Erabiltzaileok uste baino nabigatzaile
gehiago aukeratu dezakegu

Horrenbeste aukera badugu, zergatik hautatu aspergarriena? Erabiltzaileetako %80 baino gehiagok *Internet Explorer* programa erabiltzen du sarean ibiltzeko. Baina gauza jakina da hori ez dela munduan dagoen nabigatzaile bakarra. Orain dela urte batzuk programa indartsu bi baino ez baziren ere (*Explorer* bera eta *Netscape* ia ahaztua), gaur egun dozena erdi aplikazio bikain ari dira lehian alor honetan. Gehienak dohainekoak dira (*Opera* iragarki libreko bertsioa ordaindu behar da), eta *Explorer* baino aukera gehiago eskaintzen dituzte. Programa hauek baina gehiago sar daiteke ordenadorean, eta beraz, proba ez egiteko aitzakiarik ez dago. Eta zeintzuk dira, beraz,



www.mozilla.org

nabigatzaile hauek? *Mozilla*, *Konqueror*, *Phoenix*, *Safari*, *Camino*, *Linux*, *Opera*... Jarri bakoitzaren izena Google-en... eta ikusi. m

webgida

DIVULGON

>sauron.fir.edu.ar/~divulgon

Zientzia aldizkariak aspergarriak ezezik ulergaitzak ere izan omen dira betidanik. *Divulgon* ez, ordea. Hainbat bitxikeria batzen ditu webgune argentinar honek. Ezetz jakin zeintzuk diren zientzi esperimendu ederrenak?

SELEKTAH KOLEKTIBOA

>http://usuarios.lycos.es/sound_selekter


Gaur eguneko soinua ez dira 40 *Principales*-eko zemendakoak bakarrik. Eta euskal musika bistua eta danbolina baino urunago doa. Aditu ezazu euskal diskojartzaile (DJ) hoberenak hemen diotena.

MANDRAKE

>www.mandrake.org

Linux 'mota' errazek *mandrake* du izena. Gainera dohainik jaitsi dezakezu. Eta sar zaitetz weblog horretan hari buruzko hamaika

Sarean aurkitu dugu > Naturaren erotismoa



Internet-en irudi harrigarrik edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian argitaratuko ditugu. ukaldizkaria@telefonica.net

Prentsa >

Nor izan zen Pulitzer jauna?

Jatorri hungariarreko kazetari baten **omenez** banatzen dira gaur egun hain ospetsuak diren **sari** hauek

Joseph Pulitzer Hungariako Mako hirian jaio zen 1847an, baina oso gazte joan zen AEBetara, 1864an. Laster estatu-batuari hiritartasuna eskuratu zuen, eta tarte labur batez zuzenbidean aritu ostean, kazetaritzari ekin zion. Langile arrunt modura hasi zen, baina urte batzuk igarota egunkari zaharrak erosi eta berriak sortu zituen. Denboraz, sare editorial zabal osatzea lortu zuen, eta New Yorkera joan zen bizitzera; han eman zituen urterik oparoenak, kazetaritzari dagokionez behintzat. Irakurleen arreta bereganatzea gustatzen zitzaion Pulitzerri, eta horretarako izenburu deigarriak eta irudi ugari (eta sarritan odoltsuak) argitaratzen hasi zen. Joera hori indartu egin zuen bere areririk handienagaz, Randolph Hearst enpresa-gizonagaz, zeukan lehia zela eta. Biek ere ahalik eta irudirik bortitzenak eta albisterik asaldagarrienak kaleratzen jardun zuten urte luzez; gerora prentsa horia izena hartu zuen kazetari motaren aitzindariak izan ziren.

Pulitzer itsu geratu zen, baina azkenera arte jarraitu zuen bere egunkariak zuzentzen. 1911n hil zen, eta dirutza handia utzi zion Columbiako Unibertsitateari, hark kazetaritza fakultatea ipin zezan. Unibertsitate horrek ezarri zituen, hain zuzen ere, gaur egun kazetaritza onaren sinonimotzat hartzen diren Pulitzer sariak. m

Joseph Pulitzer



[komunikazioa]


Entzun >

La jungla sonora

Musika saio hau Radio Euskadik eskaintzen du lanegunetan, arrastiko 5etatik 6ak arte, eta zapatuetan, berriz, gaueko 12etatik aurrera. Zuzendari eta esatari lanak egiten dituen Joseba Martinek bultzatuta hasi zen irratisaio hau 1989ko urriaren 10ean. “La Jungla Sonora”ren musika eskaintza beti izan da eklektikoa, oso ezagunak ez diren estilo eta eritimoie arreta berezia eskaintzekoa: musika etnikoa, bluesa, jazz, folka, flamenkoa eta abar. Denborak aurrera egin ahala, programak bilakaera izan du, gaur egun erreportajeak, elkarrizketak eta zuzeneko kontzertuak eskaintzen ditu.

Irakurri >

Nabarra



Ez Nafarroa eta ez Navarra. Nabarra aldizkariak urte bi daroaz kioskoetan Euskal Herriko gizarte eta kultur gaien gainean erresuma zaharrek “ukituaz” berba egiten, Gontzal Agote koordinatzaileak azaldu digunez. 52 orrialde dauzka, “guztiak koloretan”, eta hilabetekaria da: “hutsik egin gabe, urtean 12 zenbaki argitaratzen ditugu”. Oporrik ezak ez die txukun aritzeko kemenik kendu ordea; horren proba, duela hilabete batzuk Argia astekariak eman zien saria. Zorionak!

Harremanetarako: 948 22 71 25

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Koska Irratia	89.8
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Gure espezieak >

Katajineta arrunta



- **Izen generikoa:** genetta genetta
- **Izen arrunta:** katajineta arrunta
- **Neurriak:** 40-60cm-ko luzera. Buztana: 40cm. Pisua: 1-2,5kg.
- **Bizilekua:** Basoa; babesia ematen dioten haiz edota zuhaitz zaharretan.

Penintsulan bizi den biberrido bakarra dugu katajineta. Katuarekin nahas daiteke hasiera batean, baina katajinetak baditu zenbait bereizgarri: buztan luze eta iletsua; eta gorputz kolore urdin horiskaren gainean, orban beltzak. Bestalde, buru luzea, mutur zorrotza eta belarri nabariak ditu.

Basoan bizi da batez ere (bertoko basoetan, landazabaleko basotxo isolatueta zein pinudietan), eta beti babesia ematen dion haiz edota zuhaitz zaharren batetik hurbil; halako tokiez gain, baserri hutsak, ganbarak edota txabola zaharrak ere erabil ditzake babeslekutzat.

Bada, aipatutako leku horien batean ostendurik ematen du eguna; gaua heltzean, berriz, bertatik irten eta bere egitekoei heltzen die. Denetarik jaten du, fruituak, karraskariak, ornogabeak, zenbait hegazti...; beti ere, urtaroa eta "eskaintza"ren

«Katajineta katuarekin erraz nahas daiteke»

arabera. Ehiza egiteko, zelatan egoten da une egokiaren zain. Salto eta korrika egiteko, buztanaz baliatzen da, hura lema modura erabilita. Animalia bakartia da, izan ere, 5 kilometro karratuko lur eremuetan bizi daiteke bakardadean. Urte osoan egoten da araldian, baina bereziki otsailetik abuztura arte.

Hiri-hazkundeak atzerakada handia eragin du espezie honen populazioan; halan izan da Getxon batez ere, nekazal-ingurunearen eta basoen atzerapena nabarmena baita. Uribe Kostako beste zuhazti eta baso lasaigoetan ugariagoa da.

Gaia > Energia berriztagarriak

Argi eta garbi

Gero eta gehiago zabaltzen doaz **ohiko energiarentzako** alternatibak etxeetan


Euskal Herrian dozena edo dozena eta erdi enpresa dabil energia berriztagarriaren alorrean. Horietako bat Eguzki Indar da, Tolosakoa; Jokin Aldazabal ugazabagaz berba egin dugu, energia mota honen gainean gehiago jakiteko. *“Energia berriztagarri nagusia eguzki-indarra da”,* esan digu, *“eta bi alderdi ditu: batetik, termikoa, berotasuna lortzeko erabiltzen dena; bestetik, fotoboltaikoa, argi-indarra lortzeko”.*

Eguzkiaren energiaren gain, badaude beste batzuk: haize-indarra, ur-indarra, energia geotermikoa... Azken hau, hain zuzen, *“etxe inguruko zorupean dagoen berotasuna da. Berotasun ikaragarria dago hor. Bero-bonba baten bidez pilatu egiten da, eta etxe barrura sartu”.*

Energia berriztagarrien bidez ohiko energiagaz lortzen den erosotasun maila bera lortzen dela aldarrikatzen du Aldazabalek: *“Guk etxe goxoak egiten ditugu, oso erosoa eta energia-kontsumo txikiak”.*

Eguzki-indarrera bueltatuz, zer gertatzen da eguzkirik ez dagoenean? Jokin Aldazabalek dioskunez, *“eguzkiaren energia gaueko gordeta geratzen da”.* Ortzia estalita egotea ere ez da arazoa: *“Sistema hauek urtean hainbeste energia biltzeko diseinatuta daude. Euskal Herrian, urtean, 110 litro gas-olioren baliokidea den eguzki-energia erortzen da metro koadroko, eta horren erdia-edo aprobetsatzen da”.* Lainotuta dagoenean, aurretik pilatutako energia erabiltzen da, eta horregaz nahikoa izaten da etxea behar bezala hornitzeko. ^m

Harremanetarako: 943 67 42 56



Eguzki panelak Getxoko Aixerrota institutuan

Sasoia da > ahateak

arrak baino ez dira ikusten orain gure erreketan



Aurrekoan, udaberriaren etorreraren berri eman genuen. Bada, gure inguruko errekek ere, urtaro honen bizitasuna erakusten digute. Azkenaldian, dragatu barik uzten ari dira erreka hauek eta honek hainbat landareren kimatzea eta loratzea dakar (sahatsak, lezkak, ostargi-belarrak...). Ahateak oso gustora ibiltzen dira landare-paradisuhonetan. Inguru hezeetan gehien ikus daitekeen animalia da ahatea, baina egun hauetan bertara hurbilduz gero, ohartuko gara arrak baino ez ditugula ikusiko; izan ere, sasoi honetan, emeak errunaldian daude eta ez dute euren burua hain erraz erakusten. Martxo eta abuztua bitartean gertatzen da hau; 26-27 egunen buruan txitoak jaioko dira.

Txangoa >

Liendo inguruak Kantabrian



Bale itxura duen penintsulatxo eder hau topatuko du bidean ibiltariak

Testua eta argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**

Ibilbide ederra da proposatzen dizuedan hau. Bidean (ikusitako fitxa) ibiltariak behiak larreetan bazkatzen ikusiko ditu hasieran eta baita euren etengabeko ehizan dabilzan hegazti harrapakariak ere. Gero harrien arteko igoera hasten da eta batek bere oinak zapaltzen duena zaindu behar du. Laster ibilbideko punturik garaienera helduko gara, itsasoa azpian baina metro askotara duen labar batera hain zuzen ere. Handik bistak ikusgarriak dira, Bizkaiko Golkoaren zati handi bat goza daiteke eta. Gure botapetan, bale itxura duen penintsula txikia



itsasoari oldartzen zaio. Haren alboan, ezkerrean, Sonabia hondartza dago. Eskuinean berriz, urrunago, Islares, urak bere altzoan hartzen dituena. Are urrunago Contera irla ikus daiteke. Bistak Bizkaiko lurretan galtzen dira.

Itzulera bide beretik egiten da. Datu jakingarri bat: ibilbide hau egiteko ordu bi eta erdi behar da. Ez zaizu damutuko. ^m

Zelan heldu

- Bilbo-Santander errepidean, Oriñonen atera. Bidea jarraitu eta N-634 errepidearen 161 kilometroan aparkaleku txiki bat aurkituko duzue. Handik itsasorako norabidean mendixkaren gainara bide bat abiatzen da. Hori da segitu behar duguna.



Mendi kirolak >

Parapentea

- **Non:** Uribe Kostan, Azkorri, Billano lurmuturra, Barrika eta Lemoiz.
- **Noiz:** Urte osoan, eguraldiak lagunduz gero.
- **Materiala:** Parapentea, kaskoa, jantzi egokia, jausgailua (komeni da).

Nork ez du inoiz Azkorri inguruan parapentetik ikusi? Udan Barinatxe edo Gorrondatxe hondartzetara hurbiltzen denak askotan ikus dezake zerua objektu hegalar horiez beteta. Parapentea betiko jausgailuan oinarrituta dagoen kirol berria da. 1983an hiru jauskari frantziarrek euren jausgailuen azalera handitu zuten, erresistentzia eta planeatzeko gaitasun handiagoa lortzeko, eta bide batez, mendi gailurretatik salto egin ahal izateko, hegazkin garestiak alokatzeko beharrik izan gabe. Ondoren, beste hainbatek ere esku hartu zuen asmakizun berrian, egun ordo ezagunak diren material berriak agertu arte (nylon, karbono-zuntza, kevlarra...)

Baina, nola egon gaitezke airean oihaltzati soil batek eutsita? Lege fisikoak dira honen erantzule. Parapente batean dena dago behar bezala diseinatuta. Izan ere, egonkorgailuak, hegoaren barruko eta kanpoko aldeak eta

«Astebetean parapentean ibiltzen erraz ikas daiteke»

abarrak airearen presioa bideratzeko eginda daude, eta ezaugarri horiei esker eutsiko gaitu aireak goian eta egin ahal izango dugu alde baterantz edo besterantz.

Parapentea, planeagailu ultra-arina da. Planeagailua, ez duelako motor beharrik edo airea baino arinagoa izan beharrik (globoak bezala) hegan egiteko. Ultra-arina, berriz, pilotuak baino pisu txikiagoa duelako eta beraz, aireratu eta lurreratzeko ez da inolako laguntzarik behar. Horrez gain, malgua da, egitura zurunik sortzen ez duten zuntzez eginda dagoelako; hauxe da, hain zuzen ere, kirol honen xama, motxila batean sartzen diren oihaltz metro batzuk edonor eusteko hego handi bat bihurtu ahal izatea.

Bestalde, kirol garestia da hau. Parapente arrunt batek 1500 euro inguru balio dezake. Eta horri, aukila (300 inguru), kaskoa (120), jantzi egokia eta jausgailua (400) gehitu behar zaio. Bestalde, kirol honetan hasteko beharko dugun prestakuntza jasotzeko, guztiontzat eskura diren parapente eskolek (*Club Escuela Deportiva Parapente Sopelana*, beskualdean) eskaintzen dituzten ikastaroak ditugu; 6-7 egun nahiko izan daitezke eta 450 euro inguru balio dute.

Gogoia >

Insonmia

Nagore Etxebarri psikologoa

Lo hartzeko edo lotan jarraitzeko zailtasunari, edo behar beste lo ez egiteari deitzen zaio insonmia. Hiru erakoa izan daiteke. Buruko nahaste baten ondorioz sortua, gaitz organiko bati lotua edo insonmia primarioa deitzen dena.

Insonmia primarioaren ezaugarri nagusia lo egin ezinagatik egunean zehar gehiegi kezkatzea da. Hau dela eta pertsonak ahalegin handiak egingo ditu lo egiteko, eta kezka honek berak eragiten duen tentsioagatik are zailagoa izango zaio. Honek kate amaigabea sor dezake, baina paradoxa bada ere, edozer gauza lasaitasunez egitea lortuz gero (adibidez irakurri), erraz lokartu daiteke pertsona. Insonmia jasaten dutenek euren bizitzan loaren eredu eskasa izan dutela aurkitzen da sarri. Askok haurtzarotik izan dituzte lo hartzeko zailtasunak. Badira, bestalde, gaitz edo zailtasun hau estresaldi baten ondorioz bereganatu duten asko.

Laburbiltzeko, insonmia daukazula uste baduzu, ken ezazu burutik lo gutxi-asko egitearen kezka, ahaztu kontu hori, burua beste edozertan jarrita hartuko duzu lo: telebista ikusita, zer edo zer irakurritik, artikuluak idatziz...



Gorputza >

Ariketa fisikoa eta osasuna

Jabi Gorostiza medikua

Komunikabideek sarritan esaten diguteenez, zalantzarik ez dago gorputz ariketak neurritz egiteak onurak dakartzala osasunerako. Izan ere, frogatuta dago ariketa fisikoak lagundu egiten duela zenbait gaixotasun saihesten edo arintzen, ondokoak adibidez:

- Bihotz eta odol-hodietako eritasunak, bereziki koronarietako (bihotzeko arteriak) gaitzek eragindakoak: infartoa, angina etab. Ariketa fisiko eza beste eragileen pareko bihurtu da (hipertentsioa, erretzaile izatea...).

- Osteoporosia saihesteko, hau da, hezur dentsitatea areagotzeko primerakoa da, elikadura egokiarekin batera. Bestetik, adin batek gora erorikoak izateko arriskua gutxitu egiten da nabarmen.

- Artrosia ("desgastea"): giltzaduren egitura eta funtzioa ahuldu ez daitezen behar-beharrezkoa da soin aktibitatea, baita giharren indarra bermatzeko ere.

- Loditasuna: arrisku faktorea da hainbat gaixotasunetarako: bihotz eta odol-hodietakoak, artrosia, minbizi mota batzuk eta arazo psikologikoak.

- Diabetesa: ariketa fisiko onuragarria da bai gaitzari aurrea hartzeko, bai tratamendurako. Gauza bera esan dezakegu kolesterola eta triglizeridoen kasuan, dieta egokiarekin batera egiten bada.

- Minbizia: orain arte egindako ikerketen arabera, koloneko minbiziak saihesten ere laguntzen du kirol egiteak. Bularreko eta traktu genitalako minbizien inguruan ere egiten dira

ikerketak batzuk, baina ez dago oraindik ondorio garbiegirik.

Beste alde batetik, neurritz gainera ariketa fisiko egiteak kalteak ere ekar ditzake, horretarako ohiturarik ez duten gorputzetarako batez ere: gerri eta oinetako minak, giltzadurako bihurrituak, edozein lekutako tendinitisak... Kontu bereziaz ibili beharko dute lehenagotik gaixotasun metabolikoak dituzten pertsonak: diabetes kontrolgabekoa, deshidrataziorako erraztasuna dutenak etab., bai

«Onena eguneroko bizitzan soinketa lantzea da: eskailerak oinez igo...»

eta gaisotasun kardiobaskularrak dituztenek (infartoa, zainetako arazoak...).

Horregatik beharrezkoa da norberaren adin eta egiturarako egokia den ariketa egitea. Onena da egunero zer edo zer egitea, intentsitate handiko ariketa ez bada ere. Are gehiago, gomendatzen da jarduera honetan edo bestean hasi beharrean geure eguneroko bizimodu soinketa sartzea: autoa gutxiago erabili, igogailua baztertu eta eskailarak oinez igo... Osasungarriagoa da ariketak sarri egitea asteburuetan kirolaldi luze edo gogorrek egitea baino, horrek mesedea barik kaltea eta arriskua dakar eta, gorputzari ahal duen baino gehiago eskatzen diogulako.

Animo, ba! Eta ez ibili aitzakien bila, ibilaldiak egitea gauzarik errazena da eta! m



2003ko udan horrelako bikiniak ikusiko ditugu ("Kala" dendak utzitako irudiak)

Hondartzan ibiltzeko (II)

Horrelakoak izango dira **emakumezkoek aurten jantziko dituzten bainu-jantziak**

Agindutakoa bete egin behar denez, hona hemen ikusgai emakumezkoentzako bainu-jantzi berrienak. Iratxe Agirre algortarrak erakutsi dizkigu, baita horien nondik norakoak azaldu ere; berak 15 urte daramatza udarako arropa hauek saltzen. Aurtengo joerarik esanguratsuenak lepoan lotzeko tirante zabaldun bikiniak eta hiruki itxura dituztenak izango dira. Koloreei dagozkionez, beltza, gordina, zuria eta gorria nagusituko dira hondartzetan, marrak, marrazki geometrikoak eta loredun estanpatuak bezala. Halaber, emakumezkoek kuleroak oso behean jantziko dituzte (zilborretik behera) eta bularretakoek ia ez dute betegarriro eroango.

bitxiak, parpailak eta dirdivak bezalakoak; bainu-jantziak diskretoa izan behar du, formetan klasikoa eta ondo 'eutsi' dezala'. m



Zati bakarrekoak

Bikiniekin ausartzen ez diren andreak (lotsa edo adinarengatik), zati bakarreko bainu-jantziak erabili ohi dituzte. Arlo honetan berrikuntzarik ez dagoela esan digu Iratxe Agirrek: "Ez gara Marbellan bizi. Hemen ez zaizkigu gustatzen osagarri

I
I aki
Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte T: 4302345
Algorta

IRATI
moda gaztea
opariak
Torrene 2, ALGORTA
T: 94 491 12 71

Errotalde
ileapaindegia
HARTU TXANDA TELEFONOZI!
T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO
GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobari 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

EGINKOR
INMOBILIARIA
Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com

OSAEIDE? HORTZ? KLINIKA
Arantza Etxebarria
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI
Bidebarri 27, behea eskailera
ALGORTA 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga
HORTZ? KLINIKA
Tel. & Faxa: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerre
ALGORTA

ALBE alerik ale

Euskara eta bertsoa maitatuz

Iñaki Benito del Valle > Zer eskatu, hura emateko gertu beti

Testua: **Josu Arroyo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Eskolaren lehen loraldia bertatik bertara bizi izan zuen bertsolari eta bertsozale umila. Neurritz txikia, tratuan ezta, ez ahal dugu ahaztuko sasoi batean algortar jator honek bertsoaren alde egindako guztia!

—Sasoi batean eskolako zutabeetako bat zintugun. Zein oroitzapen duzu sasoi haietaz?

—Eskolak nahiko desberdinak ziren orduan. Merienda baten inguruan antolatzen ziren askotan. Jendea eskolatik alden- alden joan zen, eta aldi batean Joseba Santxo, Josu Landeta eta neu ibili ginen batez ere. Oso oroitzapen ona dut garai hartaz.

—Ardura handia al da ALBEko presidenteorde izatea?

—Dirulaguntzak zirela eta ez zirela, eskolak elkarre izaera hartu behar zuen, eta horretarako izen edo kargu batzuk behar ziren; presidentea, presidenteordea eta diruzaina. Niri presidenteorde egokitu zitzaidan, baina kargu sinbolikoa da. Ni laguntzaile hutsa baino ez naiz izan eskolan. Lan handienak beste batzuek hartu dituzte beti.

—Urte hauetan guztietan zer aportatu dizu bertsogintzak?

—Gauza asko! Lagun handiak egiteaz gainera, euskara maitatzera eta estimatzera eramane nau bertso eskolak. Eta urtez urte barruan dudak zaletasuna handituz joan da, duda barrik!

—Azkenaldian apur bat lagata daukazu bertsoen kontua, baina inoiz bertsoerik jarriko duzu, edo dendan bakarrik zaude-



“Bertsoekiko zaletasuna bizi-bizirik daukat. Hori ez da sekula galtzen!”

la inoiz kantatuko duzu...

—Bertsoak jartzeari dagokionez, bertso-jartzaile alferra naiz ni, baina bestela segitzen dut, ahal dudana moduan, segitzen dut irakurtzen, eta segitzen dut neure buruari bertsoan. Alabari bertso sortak irakasten dizkiot, eta dendako bazkideari haren urtebetetze egunean edo komentario barregarriren bat egiteko faxez bertsoak bidaltzen dizkiot... Zaletasuna bizi-bizirik daukat, nola ez! Hori ez da sekula galtzen!

—Oso desberdinak al dira zeure garaiko eskola eta egungoa?

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Iñaki Benito del Valle.
- ▶ 1959an jaio zen, Bilbon.
- ▶ Bizitza osoa eman du Algortan.
- ▶ Euskaldun berria, badu EGA titulua ere. Ostalaritzan ibilia, zazpi urtez.
- ▶ Azken hamar urteotan, Goizean dendako bazkide.

HIRU LERROAN

Algortako Bertsolari Eskola

Bertsojartzailea: **Iñaki Benito del Valle** / Doinua: **Iparragirre abila dela**

1

Dohako lanak piztua izan zen
Algortan bertso suzia,
eta horrela izan da beti
hogei ta bost urtez ia.
Nahiz batzutan lotuta,
sua beti piztuta,
bero mantenduz hazia;
kontuak kontu hori izan da
gure lorpen nagusia.

2

Saio mundiala, balkoirakoa
Abra ta Ahobiena,
nahiz hauek izan, besteak beste,
eskolaren agerpena,
beste gauza bat dago,
ezein baino lehenago,
dena bultzatzen duena:
bertsoa euskaraz, euskara bertsoz
binomio askaezinarena.

3

Ta hau esanda irakurlea,
jakin dakizu non gauden.
Euskaldun berri edota zaharra,
berdin-berdin zaigu hemen.
Bertsotan hasi ezker,
dudarik gabe gero,
zu konturatuko zinen
euskara eta bertsolaritza
zein gauza ederrak diren!

“Eskolako jendeak gero eta aukera gehiago du bertsotan egiteko, eta hori gauza handia da!”

—Inoiz izan duen momenturik aktiboena bizi du eskolak gaur egun. Ni beti izan naiz gazteei eta umei behar den denbora guztia ematearen aldekoa, baina guretzat horrek eragina izaten zuen gudan, gu ia ez ginen bertsotan jarduten. “Eta guk noiz egin behar dugu?” pentsatzen nuen nik, azken batean, gure zaletasuna bertsotan aritzea izan delako beti. Orain ikusten dut, eskola orduz aparte, jendea mugitzen ari dela, eta azkenean guztiek dutela kantatzeko aukera. Eskolako jendeak gero eta aukera gehiago du bertsotan egiteko, eta hori gauza handia da!

—Azkenaldian lotsor samar ikusi zaitugu jendaurreko bertso ekitaldietan...

—Kontua da nik ez dudala neure burua ikusten sari emaile moduan, lagunei huts

ez egitearren baino ez dut egiten. Bestela, entrenamendu apur bat eginez gero, ni prest nengoke jendaurrean kantatzeko, aparteko lotsarik gabe. Beti egoten da tentsioa eta urduritasuna, baina hori bertsolariei gustatu egiten zaigu. Ni makina bat plaza eginda nago, ikastolako festetan, gure inguruan, Ezkerraldean... baina urteak aurrera doaz, gauzak aldatu egiten dira, eta atzetik datozenei bidea egin behar zaie.

Gizon apala izan da beti, protagonismoa maite ez duen horietakoa, eta elkarriketarako ere itzulinguruka ibili zen, baina bertso eskolari buruz hitz egiten duenean, antzematen zaio bai barru-barruko zerbait duela, eta haren bertsoetan ere ondo baino hobeto islatzen da hori. m

BERTSOAGENDA

TXAPEL BETE BERTSO

Apirilak 30, 20:00etan,
Urdulizko Txiberri tabernan.
Bertsolariak: Miren Loizaga,
Joanes Igeregi, Urtzi Urrutikoetxea
eta Matxalen Zabaljauregi.

Apirilak 30, *Trapagananen.*
Bertsolariak: Fredi Paia, Gabi
Basañez, Jon Berrokal eta
Josu Martinez.

Antonia Arondo

Oraingoan, Erandiora hurbildu gara osteraren eguna, Erandioko Mesobarrikoa den Antonia Arondogaz berba egiteko. Hirurogeita hamabost urte ditu eta urte askotan joan da soroko jeneroak saltzen Portugaletera. Bestalde, Egunkariaren kontua dela-eta kartzelaratu zuten Xabier Oleagaren ama da.

Testua: **Urtzi Iglesias** / Erretratua: **Asier Mentxaka**

—Nola jakin zenuten Xabier zure semea kartzelaratu zutela?

—Erranak deitu euskulako etzera. Eta radioti eon gintzen entzuten, osea que entera gintzezan handik eta hemetik batera; ze honek (gizonak) beti eukiten deu igual goxeko bostetako radio imintte; ta eon gintzezan orduntze entzuten.

—Xabier beti ibili da euskararen alde beharrean ezta?

—Xabier jaio daneko dabil hortan, ze hak ez deu besterik euki, beti euskere. Hamazazpi urterako profesore eon zan Deustun. Beti ixan da euskerazale. Yon zanen soldaiskera bere esan eusten: “Ama, zuk ez eskribidu niri erderaz, eh?” “Bai baie nik ez dakit euskera eskribiten” “Ez deko ardurik, niri berba eiten doztezun modun, halan eskribidu”. Ta holan soldadiska duztin; erdera inoz bez.

—Zeu bertoko zara, ezta?

—Bai. Hemen yaio nintzen, Mesobarrin, eta hemen hazi; hil arten hemen egongo naz ni. Hemeko beti, hirurogetamabost urte.

—Soroko generoak saltzen zenituen, nora joaten zinen?

—Portualtera yoten nintzen. Ni hasi nintzen, atera nendun karne, kotzeaz yoteko, ta kotzeaz Portualtera. Ta haaz, kotzeaz bertaraino yoten danez, pasa zubiti ta bertoraino, ba kotzez. Hainbet urte ein dodas holan. Ointze urtebeten utzi dot. Yausi nintzen Erandioko Landan, tropeza nintzen, eon zan kantarile bat imintte, ta yausi ta esku apurtu, ta saihetzak, eta aurpegi duzti; ta



ordurik hona ezin du egin askorik. Ondino nau plaze pagaten eh? Ondino puesto pagaten baie ya ezin du egin askorik. Lastime da, ze ez naz kantzaten, ze kotzeaz yon ta han egon... baie solon egin behar da hara yoteko, ta solon ezin du egin. Oin gitzi, oso gitzi, etzerako ta nahiko. Ta oin atzeta datozenak ez deure gure solorik. Gu ama ta aitan atzen ibiltzen gintzen beti lagunten, baie guri lagunten? Xabi ez da ixen iñoz solorako eta alabe bez.

—Ama ere joaten zen lehen, ezta?

—Bai, lelau ama ibiltzen zan, baie ha Por-

tualtera ez; astotxuez, atzineko astoaz yoten zan Astrabudure ta Desierture bebai. Ondo preparata yoten zan; amentala ondo plantzata... Astrabudu duztin ezeten euen, oin Astrabudu be ez dago orduko modun ze oin dana dau kanbiaute. Oin ez da bixi lengo jente, oin barrik bixi dire ta etzerik be ez zan eoten horrenbeste. Bai, astotxuez yoten zan beti; yon astoaz, kargaute ta etorri bera ganen. Hor bota ieun behin astok bera ta eskuturre apurtu ieun, ta honek (gizonak) ordun motorra euki eun; ta ordun eon zan Laukizen, esateotzean hazurmintzalle; ta honek eroeun motorran atzen, vespa baten. Ta hazurmintzallek esateuen: “Ez dot sekule ikusi holako andrarik, gogorra”. Imiñi iotzen amarrata, ta gero etzerantzta ekarteko: “lengo lekuti yoango gare, Loiutk bueltan, ezta?” ta “Ez, handi bueltan, Mungiti bueltan”. m

Gurberbakezel

ZELAN ESAN

Noz (noiz) galderari erantzuteko

Testua: **Xabi Bilbao**

Azkeneko UKn denporan ganeko berba eta esakera batzuk ikusi genduzen; horrek kontuk osotuteko hemen doaz beste esalditxu batzuk denporako informaziño emoteko adibidek direzenak.

—NOZ akábakozu hori beharra?

—Oñi ezin dot, asti **dekótenen** akábakot (akábako dot).

—Asti dekózunen? Nik **lehenbaxelen** ber dot (behar dot) baia!

—Ikusi **baño lélau** (lehenago) yakin dot Andoni dala.

—Zelan? Beti **belu** étorten dálako.

—Ezta hainbésterako, **noxípeñ** étorten da belu.

—Gorbea iyen gure bádozue **goxeti** urten bérkozue (beharko dozue).

—Goxeti-goxeti bérez, gizona! Ondo **armósa ósten** yongo gara...

—**Léhengo áldin** bere ólantxe esan zendun eta hamákatartaren ezkendun urten.

—Baia **noz** akábakozu beharra ba? Akábakozu **nózonoz**?

—**Óstabere!** Eztotzut esan ba, asti dekótenen?

—**Hárengun** bere horitxe ésan zeusten, eta **árterauko** egunen!

—NOZ **ÁRTEN** egon ber (behar) dozu ogirik yan barik?

—Óndiño **unekáda** baten égoteko esan daust médikuk, pixu apur bet **baja árten**.

—Neu enentike égongo **hemetik eta gauerárten** bérez, yánariez ogi yan barik.

—Áiko, ze karnet da hori! **NÓZTI(K)** zara Realan sózio ba?

—Ba... Nóbia batéaz ibil nitzen, Donóstiko, ta **ordúrik hona**.

—Zer dan maitasune! **Aspaldírik** eztot hólau ejénplurik ikusi!

—Baia karneta **in nénduneti(k)** enaz yon Anoetara hamar bider bérez.

—NOZKO konpónduko daure kamiño barri?

—Nok yakin! **Óndiñogarren** galipota bóta barik dauz!

—Hólau bádoaz **Gabónatarako** bere ezta óngo (égongo) konpondúte.

—Gabónatarako? Bai, konpónduten **dáudenerako** gu jubíflata óngo gara.

BERBA BARRIK

noxípeñ: noizik behin. / **lehenbaxelen**: lehenbailehen. / **armósa**: gosaldu.

belu: berandu. / **goxeti**: goiz. / **árterauko edo árteko**: aurreko.

nózonoz: noiz edo noiz. / **unekáda edo unikáda**: aldi.

akabukopunte@hotmail.com

Zuen berbakeraren gainean zeozer aipatu gura baduzue, zalantzaren bat edota proposamen bat badaukazue...



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58
31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

Euskara ikasten dute

Iñaki Lezama (Gorliz)



—Noiz hasi zinen euskara ikasten?

—Ikastetxean ikasitakoaz aparte euskaltegi honetan orain dela bi urte hasi nintzen.

—Zein mailatan zaude?

—Goi-mailako urratsan.

—Non ikasten duzu?

—Gorlizeko AEKn.

—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?

—Hizkuntza jakiteak eta kalean erabili ahal izateak. Gure herrian berreskuratu behar dugun gauza da eta horrek ere bultzatuta ikasten dut.

—Zer da gehien kostatzen zaizuna?

—Gramatikako kontuak batez ere, aditzak, mugagabeak... eta hitz egitea.

—Orain arte ikasitakoa erabiltzen duzu?

—Oso gutxitan erabiltzen dut, lanean aukera daukat erabiltzeko eta bertan euskaraz hitz egiten dut.

—Zelan definituko zenuke euskara?

—Oso hizkuntza zaila da, gainera kalean erabiltzeko orduan bakoitzak bere hizkera du eta ezberdintasunak dauzka hemen ikasten dugunarekin. Niretzat euskara ikasteko prozesu honetan hau beste zailtasun bat da. m

EHE

Sopelako Euskal Herrian Euskaraz taldearen berri

Duela urte bi, Sopelako lagun batzuk bildu ziren, herrian euskararen alde behar egiteko asmoz. Sopelako EHE taldea dugu hau eta orain arte egindakoaz eta hemendik aurrerako helburuez jakiteko, Xabier Etxegararekin egon ginen berbetan

Bada, duela bi urte Sopelako zenbait lagun elkartu, eta herrian euskara indartzeko asmoz, Sopelako Euskal Herrian Euskaraz taldea sortu zuten. Lehenengo batzarrak egiten hasi ziren, egin beharrekokoak zehazteko, eta hasierako lana euskararen egoera aztertzea izan zen. Uste baino behar neketsuagoa izan zen, Udalak zituen datuak 1996koak zirelako, eta beraz, ez zetozen bat orduko errealitatearekin. Behin datuak eskuan izanda, herrian euskararen ezagutza handia zela ohartu ziren; herriko biztanle kopuru handi batek euskaraz zekien. Baina datu horiek ez ziren eguneroko bizimoduan islatzen. Honela, landu beharreko hurrengo beharra egiteari ekin zioten, hots, euskararen erabilera hori neurtzea. Honetarako, galdeketak, ezkutuko grabazioak eta abar egin zituzten. Emaitzek argi utzi zuten erabilera eta ezagutza ez zetozena bat.

Udal ordenantzetan ari dira orain lanean, baina arazo bat dago taldean: egun, hiru dira beharrean dabilzanak eta honek lana zailtzen du eta hainbat ideia eta asmo bertan behera utzi beharra dakar, ezinezkoa baita guztiei heltzea. Xabierrek dioen legez, *“jendea ez da sartzen euskararen aldeko beharrean; bestelako borrokek jende gehiago biltzen dute, baina euskarari ez zaio garrantzirik ematen”*.



deko beharrean; bestelako borrokek jende gehiago biltzen dute, baina euskarari ez zaio garrantzirik ematen”.

Hala ere, taldeko kideek ez dute galdu beharrean jarraitzeko gogoia eta helburu berriak dituzte. Alde batetik, kalean euskararen erabilera sustatzeko egitasmo berrietan pentsatzen ari dira. Beste alde batetik, Sopelan pediatria euskaldun bat egoteko eskakizuna egingo dute, haurrentzat euskara eskolako hizkuntza soilik izan ez dadin. Azkenik, A erdua desgertzeko ahaleginean ere behar egingo dute; izan ere, EHE taldeak azpimarratzen duenez, elebitasuna ezinezkoa da. Euren ustez, euskarak bere lekua izango badu, elebakartasun egoeran izan beharko du. m

“Jendea ez da sartzen euskararen aldeko beharrean; bestelako borrokek jende gehiago biltzen dute, euskarari ez zaio garrantzirik ematen”


Urbe Kostako Euskara Zebitzuak zure zerbitzura

Getxo: 94 491 14 41 • Leioa: 94 400 80 44 • Erandio: 94 489 01 40 • Berango: 94 668 00 08 • Gainerako herriak: 94 676 26 74

TRUK

Oparirik Omenak!

EUSKAL MAKILAK

GAZTAINONDO
MAKILA 149 €MIZPIRONDO
MAKILA 185 €METALEZKO
ERLOJUA 52 €TOALLA-JOKOA
3 TOALLAZ OSATUTAKO JOKOA:

- 35x50, 50x100, 70x140
- Koloreak: granatea, berdea, horia, urdina
- 100% kotoia
- 500 gr. m2

28 €

ARGIZAIOLA

- Altuera: 45 zm.
- Zabaler: 15 zm.

70 €

ELENA CORCIN ARTISAUAK
ESKUZ EGINAKDEI IEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN3,69 €
BIDALKETA GASTUAK

dentu!

TRUK

902 45 12 12

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Antxoak kazolatxoan

Antxoaren sasoi bete-betean gaude. Aurtengoa, entzun dugunaren arabera, oso kanpaina txarra izaten ari da gure arrantzaleentzat. Ea datorren urtekoa hobea den! Antxoa hamaika modutan presta daiteke: binagretan, albardatua... Edozelan ere, beti gozo. Gaurkoan, antxoan kazolatxoan proposatzen dizuet; errezeta erraza eta edozein gonbidaturen aurrean sukaldari onaren itxura emateko baliagarria. Hasteko txikitu berakatz ale batzuk eta gindilarekin batera, oliba oliotan sutan ipini. Berakatz urreztatu baino lehen, bota basokada erdi ozpin eta ardo zuriko beste bat. Olio berotutakoan, bota antxoak (800 gramo, buru barik eta tripak kenduta) eta perrexil apur bat. Itxaron bost minutu eta mahaira! ^m

osagaiak (bi laguntzat)
800 gramo antxoa • berakatz • gindilak • basoerdi ozpin
basoerdi ardo zuri • oliba olio • gatza



itsaso arana / jolastoki-koa

Zer ote da dekantazioa?

«Dekantazioa ardo aireztatzeko eta denborarekin sortzen zaizkion sedimentuetatik bereizteko erabiltzen den teknika da»

Ardoaren dekantazioa behar-beharrezko teknika zen antzinako ardoetan, batez ere ekoizteko moduagatik. Gaur egun berriz, ardo zaharretan baino erabiltzen ez den teknika dugu.

Dekantazioa ardo garbia eta bere zikina banatzea da, hau da, ardo, denboraren poderioz sortzen zaizkion sedimentuetatik bereiztea. Helburua ardoan sakabanatuta dauden partikula hauek sortzen duten itxura desatsegina saihestea da eta era berean, partikula hauek ahoan igartzearen desplazerra. Dekantazioa, ardo oso astiro botilatik decanter-era (edo pitxer batera) pasatzean datzan teknika da.

Dekantazioaren beste onura bat zera da, ardoak arnasa hartzen duela eta horrela aireztatu eta asfixia usainak galtzen dituela. Baina kontuz, bortizki eginez gero, kalterako izan daiteke dekantazioa.

- Hortaz, zera esan daiteke laburbiltzeko:
- Hondarrak (posoak) dituzten ardoak baino ez dira dekantatu behar.
 - Azken bolada honetan, gaztegiak diren ardoak dekantatzea gomendatzen da, berez duten indarra apur bat gal dezaten.
 - Gehiegi aireztatu ez dadin, azken unean dekantatu behar da ardo beti. ^m

Kaian Plentzia jatetxea goi sukaldaritza inguru ederrean



Argazkian, jatetxe berriko buruak


Oraingoan Plentziara hurbildu gara bertako portuaren ondoan dagoen *Kaian Plentzia* jatetxearen berri izateko. Abenduaren hasieran zabaldu zuten eta orain arte izan duen harrera ontzat hartzen dute jabeek. Bertan, dastatzeko menua eta karta eskaintzen dute. Menua aukeratzuz gero, entsalada, arroz beltza olagarroarekin, lupina, entrekota eta postrea jateko aukera izango dugu. Kartan berriz, hasierako platerak, itsaskiak, arrainak eta haragiak eskaintzen dituzte. Plater horien artean badira azpimarratzeko batzuk; besteak beste, olagarro eta zigala kaneloiak, makailu eta onddoak iberikoekin egindako pil-pilaz lagun-

duta, edota txingarretan erretako arrain eta haragiak. Postreak ere ez dira nolana hikoak; horren adibide, esne-ogia eta karamelu erre dituen konfitatua edota Idiazabal-hostopila ditugu. Gastronomía-paradisua honen sortzailea Josu Ibarra sukaldaria da.

Baina jatetxe izateaz gain, zazpi gela erosok osatzen duten hotela ere bada. Horrekin batera, udarako terraza bat jarriko dute eta kartaz gain, menu berezi bat prestatzeko asmoa ere badute. ^m

KAIAN PLENTZIA
Areatza, 38. Plentzia
Telefona: 94 677 54 70

jakingehiago



Sasoian > antxoa

Antxoaren "ehiza" hasi da

Engraulis ancrasicolus du izen zientifikoa gure arrain txiki eta preziatu honek. *Prestige* untziak eragindako hondamendia dela-eta, hilabeteko atzerapenez hasi berri da aurtengo antxoa arrantza sasoi. Euskal Herriko 200 unti abiatu dira Ontón eta Bidasoa arteko antxoa arrantzalekuetara, Kantabria eta Asturiasekoetan arrantza debekaturik baitago oraindik kutsaduragatik. Garesti eta urria izango da aurtengo antxoa.


Asado r



¥ Egunero zabalik
¥ Eguneroko menuak
¥ Enpresa menuak
¥ Menuak norberaren gustura

¥ Egunero karta berezia
¥ Gazez dastatzeko menua
astelehenetik ostegunera
¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 | T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea



adituak gara
makailo eta
kazolatxoak
prestatzen

Bilbo-Plentzia errepeidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf: 94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA

Bidaiak
Autobusak


T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5
AREETA ALGORTA
T.: 94 464 89 94 T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Familiartean duzun arazoetatik ahalik eta urrunen ibili zaituz. Diruarekin praktikoago izan behar duzu. Zure esku dago lanean aldaketak egotea. Momenturik aproposena da bitaminak hartzen hasteko eta sasoiaren berreskuratzeko.

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Familiak esker ona emango dizu bere ondoan egon zarela. Zure denbora ondo antolatzen baduzu gehiago egingo duzu lanean. Ez da komeni epe luzera planak egitea. Nekatuta zaudete atsedena hartu behar duzu.

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Jakinarene gainean egon zaituzten, bolada erabakiorra helten ari da zure bikoteki-dearekin, agian haustura dator. Espero ez zenuen diru kopuru handia jasoko duzu. Eragina duten pertsonak aukerak emango dizkizute, asko balio duzu eta.

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Amodioa falta zaizu behar duzun oreka lortzeko. Gai ekonomikoei begira, irabaziaz lor ditzakezu. Zure lantokiko norbaiten urduri jartzen bazaitu, paxadaz hartu, ez du kezka merezi eta. Osasun aldetik oso ondo zaudete, ez itsutu horrekin.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Harreman batean sartuta zaudete buru-belarri. Jakin beharko zenuke mundua ez dela harreman horrekin amaitzen. Kasu gehiago egiezu familiari eta lagunei, zure falta somatzen dute eta. Nagusiak lan gehiago emango dizu. Onartu beldurrik gabe.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Denbora gehiago hartu behar duzu zure harremanean bakea nola aurkitu pentsatzeko. Nahiko kezkatuta egongo zara diru kontuak direla eta. Lana ondo egitea ez da nahikoa, lankide ona ere izan behar da. Beheraldirako joera.

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Maitasunean ezin hobeto doakizu dena eta gainera zorri ona izango duzu jokoetan. Gehiagorik nahi? Lanean dezente aspertuko zara. Bada garaia medikuarengana joateko. Osasun-azterketa egingo duzu eta horrela jakingo duzu zelan zauden.

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Ez zaituzte zurekoia izan, badakizu eman ohi duzuna baino amodio gehiago emateko gai zarela. Negozioetarako duzun trebetasunak zeure irabaziaz potolortzeko aukera emango dizu. Lo gehiago egin ezazu eta sasoiaren sentituko zara.

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Bikotekidea baduzu mundua arrosa kolorez ikusiko duzu, baina gehiago kezkatu beharko zenuke zure aurrekontuaz, motz geratzen ari delako. Lanean aliantza batzuetan parte hartzea eskainiko dizute. Ondo irakurri letra txikiak sinatu aurretik.

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Denek zure sedukzioa ikusten dute baina garai txarrak bizitzen ari zara zure ekonomian. Oso langilea izan arren, gogorregia zara zure usteko etsaiekin. Agresibitate hori murriztu, lanean gustorago egon nahi baduzu. Parrandak ere gutxitu.

IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Kontuz hitzekin, zure bikotekideak gaizki ulertu ditzakeelako. Aurrezkiari lehentasun handiagoa emateko garaia iritsi da. Lanean merezi duzun esker ona jasoko duzu. Beraz, gora bihotzak eta segi bide horretatik. Kilo batzuk hartuko dituzu.

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Argi ibili zaituzte, Cupido izeneko aingerurtxo bihurri hori zure inguruan dabil eta gutxienez espero duzunean gezia jaurtiko dizu. Arazo ekonomikoak badituzu orain da garairik aproposena konpontzeko. Kalean estropozu egiteko arriskua.

GERRARI EZ



GERRARI BAI



KEKO

mungia

oKINdegia

Algortan badaukagu
artisansuen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.


KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATU



Ezker eskuin

1. Industriak eraldatzen dituen gaiak. 2. Jausiak. Letra grekoa. 3. Hartuemanak. 4. Euskal Herri hegoaldeko ibaia. Estimatu handiko zur. 5. Nagoela. Zah., zakur. 6. Nork pluralaren araberako atzizkia. ... Robles, Lapurdiko txiste-kontalaria. Bat. 7. Enea. Bizkaieraz, pikeak. 8. Gauza. Saudi Arabiako hiriburua. Lehen bokala. 9. Zero. Gipuzkeraz, gara. Ardi, hitz elkarketan. 10. Arratseko otordu. Landu, apaindu.

Goitik behera

1. Lehenbizikoa. 2. Ebazpean, deliberoa. Euskal alfabetoko letra madarikatua. 3. Horkoari. Letoniako hiriburua. 4. Iparraldean, esaiozue. Erbioaren sinbolo kimikoa. 5. Ba..., haiei banu. Edateko gogo. 6. Animalia konkordun. Kasik. 7. Kalitua, hila. Oxigenoa. 8. Iodoa. Nafarroako ibilgailuetan. Niri, zuen. 9. Nafarroako herria. Bokala. Radona. Kokoriko jarri.

Soluzioak

U	D	N	O	I	H	V	A	F	A	R	I	A	K	
R	T	A	R	A	G	E	R	A	G	O				
A	V	A	D	R	I	A	D	G	A	I	R	I	A	
I	A	K	N	I	R	E	A	N	I	R	E	A	N	
I	Z	U	T	Z	E	K								
R	O	A	L	E	Z	I	N	A	I	N	A	I	N	
O	N	A	V	A	R	O	E	B	R	O	E	B	R	O
K	N	A	V	A	R	E	M	A	R	E	H	A	R	E
R	O	K	A	R	I	A	K	E	R	O	R	I	A	K
A	K	A	L	E	N	G	A	L	A	K				

Luma
EUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

Zozketa mundiala*
harpidedunen artean
8 eguneko kruzeroa 2 lagunentzat
Mediterraneoan (otorduak barne)

* Zozketa 2003/03/31n egingo da

BIDALI ZURE DATUAK ETA IZAN ZAITEZ LUMA-KO HARPIDEDUN

Luma
BAGABIGA, E.M.E.
Istillaga plaza 2 behea. 307 PK-20304 IRUN
Tfnoa: (+34) 943 62 95 64 - (+34) 943 63 08 83
luma@xedera.com / www.xedera.com




Bittor Egurrola
Getxoko Udal Banda 1928

Getxoko Udal Bandak ia mende oso batez jo izan zuen herrian (1871-1964). Argazki hau gerra aurrekoa da, 1928 edo 1929koa. Urte horietan, Lasarteko Domingo Etxebagurenen zuzendaritzapean ari zen. Domingo zuzendaria San Nikolas elizako organo jolea ere izan zen. Argazkiko izenei begiraturaz, familia bereko hiru musiko ditugula ohartuko zarete: Leon Landeta (aita), Juan eta Fermín (semeak). Getxoko bandak, garaiko beste herrietakoak bezala, jaietan eta herriko plazan dantzarako jotzen zuten. Anaiari entzundako pasadizo bitxia ere kontatu digu Pako Urretxuak. Garai hartan, jakina, ez zegoen organo elektrikorik eta Domingo Etxebaguren musika tresna jo ahal izateko, umek putz eginez auspoaren funtzioa betetzen zuten, horrela behar zen haizea sortuz. Lan horrengatik ume bakoitzak bost zentimo (*perra chica* esaten zitzaiona) jasotzen zuten. Apur bat zekena ei zen zuzendaria eta batzuetan diru gutxi hori umeei ematea ere ahazten zuten. Orduan komeriak hasten ziren, komeriak. m

Lehenengo lerroa, zutunik: ?, Angel Cuartango, Tomás Larrinaga "Chupas", Tomás Aretxabala, ?, ?, ?, Juan Landeta, ?, ?.
Bigarren lerroa, zutunik: ?, Fermín Landeta, ?, Leon Landeta, Luciano Sarria "Lucinanin", ?, José Lucas Bilbao, ?, ?.
Hirugarren lerroa, zutunik: "Nabarrito", Manuel Saez, Fructuoso Zubizarreta, Martín Sarria, "Dekalitro", Domingo Etxabeguren (zuzendaria), Aureliano ?, Ignacio Abascal "Hektolitro", ?, ?.

* Oharra: aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik bazenu, jarri zaitenez mesedez UKrekin harremanean: 94 491 13 37

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Gasteizko aktore gaztea da
- "Periodistas" izeneko teleseriean argazkilaria zen
- Hiru film luzetan parte hartu du, azkenengoa, "Volverás"

> Aurrekoaren erantzuna: Alex Angulo
> Irabazlea: * **Naiara Diego (Sopela)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki Jatetxea



Mendieta kalea 47
Sopela
Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita

SORKUN > abeslaria

“Nire buruarengan sinesten saiatzen naiz”



Zure izaera laburbiltzen duen ezaugarrien bat...
Pertsona beldurtia baina aldi berean ausarta naiz.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?
Buff... Antsietatea, neure buruaren kontrol handiagoa eduki behar dut. Hala ere, hau zuzentzea lortzen ari naiz.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...
Hiru urte nituela *Her* pelikularen soinu banda abesten.

Zein da gehien miresten duzun pertsona?
Musikan: Björk eta Billy Harvey.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?
Batek behin, guk Kashbad-en eboluzionatu genuen bezala bera aldatu zela bota zidan, bera gurekin batera aldatu zela, bai musika aldetik bai izaera aldetik. Betidanik gure musikarekin eta abestien hitzekin identifikatzen zela. Oso polita iruditu zitzaidan.

Zein komentariok egin dizu kalte gehien?
Nirekin ez dira oso gaiztoak izaten, baina batzuetan hirugarren batekiko inbidiak eta kritikak, bai, heltzen dira.

Zein da zure libururik gogokoena?
Orain dela hamar bat urte irakurri nuen *El diario de Ana Frank*; eta irakurri dudana azkena, *La flor del desierto*. Gai nagusia ablazioa da. Azken aldiak emakumezkoen literatura irakurtzen ari naiz, ekialdekoena eta erdi-ekialdekoena. Liburu mota hauek zori hutsez heldu ziren nire eskutara, baina orain arlo horretan irakurri nahi dut.

Eta film bat?
Moulin Rouge. Nire ustez, film honetan hainbat abesti ezagunen moldaketa oso ederrak egin dituzte, esaterako *Police* taldearen *Roxanne* abestia, ia jatorrizkoa baino politagoa.

Errepikatzen zaizun ametsa...
Antzektokira igo eta abesten hasi.

Zein lelorekin egiten duzu bat? *Vive y deja vivir*.

Zertan edo norengan sinesten duzu?
Nire buruarengan sinesten saiatzen naiz.

Zerk ematen dizu beldurra? Azken aldi honetan, torturak.

Zerk edo nork egiten zaizu zoriontsu? Hiru egun edo gehiago irauten duen edozein festibalek. m

SORKUN— Sei urtetan *Kashbad* taldean abeslari izan da. Hala ere, tartean beste euskal talde batzuk ere baliatu dira bere ahotsaz, esaterako, Ekon, Joxe Ripiau, eta azkena, Fermin Muguruza. Azkenean, Sorkunek, bere talde propioa osatzeko aukera izan du. Eta orain euren lan berria (*Onna*) aurkezten ari dira Euskal Herrian zehar. Gainera oso harrera ona izaten ari dira; iraila arte asteburu guztiak hartuta dituzte kontzertuak emateko.

Egunkaria aurrera!

Apirilaren **12** an eta **13** an banatuko da,
Egunero-rekin batera.

8€



FERMIN MUGURUZA Irun meets Bristol. Komunikazioa

- Fermin Muguruzaren In-komunikazioa diskoaren nahasketa berriak, Bristolgo musikariek egina.
- **Egunero**-rako edizio berezia
- Digipack formatoa
- 15 abesti: 74'ko iraupena

Diskoaren salmenten dirua
Egunero-rentzat
izango da.

Harpidedunentzako oharra: Diskoaren eskaria egiteko azalpenekin, gutuna jasoko duzue etxean.